


M. R.
argital-
daria

EUSKALERRI ZAARRA

EUSKALERRI ZAARRA




A. ARRINDA

GU EUSKALDUNOK

GU
EUSKAL-
DUNOK

A. ARRINDA

EUSKALERRI
ZARRA



IZARRA - Peña y Goñi, 13
San Sebastián - Noviembre 1969

GU EUSKALDUNOK

N.º Registro 8.830/69
D. L. S. S. 648/69

EDITORIAL R. M.

San Gervasio, 24
Barcelona

Banatzalle bakarra:

MARGO distribuciones

Aldamar, 34 Teléfono 10872 **SAN SEBASTIAN**

ARKIBIDEA

	<u>Orria.</u>
Itz-aurre	7
Ataka	11
I. – Zenbat gera?	13
II. – Noizkoak gera?	25
III. – Nun giñan?	39
IV. – Gure aurrekoen oiturak	55
V. – Aztikeri ta Sorginkeria	65
VI. – «Mari», sorgin guzien erregiña	89
VII. – Mari'ren menpekoak	115
Bibliografía	137

ITZ - AURRE

«Gu... euskaldunok».

Ez degu au, A. Arrinda'k gai ontan egin duan lenengo liburua. Leen ere ba dauka egiñik beste bat, aundiagoa «Religión prehistórica de los vascos» deritzana. Liburu, ondo pentsatua, ondo osatua, gai ugariduna, eta pozez irakurtzekoa ta on asko egingo duana.

Egilleak, bere ontan, kezka aundi bat azaltzen digu, euskaldunoi geren burua ezaguerazi bearez. Bildur da —ta arrazoi-bidez— beste jakintsu ark agintzen zuan arako nosce teipsum ura («ezaguezak eure burua», alegia) euskaldunok orain arte bear bezela bete ez ote-degun. Egia esan, liburuaren sarreran egilleak dion arako «oraintsu arte erri-kontzientziarik izan ez degula» ura, guk geitxo ta larregi derizkiogun arren, ondo egiten du berak, euskaldunen kulturari buruz zenbait gauzetan kezkatu azaltzea.

Euskaldunok geure erriari buruz, nik uste, betu izan degu erri-kontzientzirik asko, bakoitzak bere neurrian, bakoitzak geure mallan. Izan de-

gu «Erri», ta jakin ere, jakin degu gure erria euskaldun dana; eta gure artean, Historian zear, «Erri gizon» eta «Agintari» izan diranak —duana duanari aitortu bear zaio— aspaldidanik ikasi zuten, Erriaren nortasuna zaitzen ta babesten. Ikusi besterik ez dago Historiatik, nola gure asaba aiek zaitzen zituzten, antziñako Batzar Nagusietan gure Erriaren eskubideak, bear bazan, baita Errege Jaunaren gogoaren aurka ere. Guzti ori ezin bait diteke egin, Erri-kontzientzi sakon bat izan gabe.

Eta gure pentsatzalleak berak ere —Garibai batek XVI gizaldian, eta Etxabe batek XVII'an, eta, batez ere, A. Larramendi batek XVIII'an— gure pentsatzalleak berak ere garbi ezagutu ta aitortu zuten beti gure Euskalerrriaren nortasun jatorra Historian zear.

Eta XIX gizaldian, zer esanik ez. Cadiz'ko Constituzioaren ondoren batez ere, or dauzkagu iru gerrate (Gorostidi, Zumalakarregi, Santa Cruz), eta Madrid'eko Korteetan Foruen alde ain garratz mintzatu ziran Deputatuak (Olano, Berroeta, Aldamar, Egaña...) eta gure bertsolariak (Iparragirre, Xenpelar), eta batez ere Llorente'ren eta Traggia'ren aurka idatzi ziran euskal-apologiak (Astarloa, Novia de Salzedo, Chao, Arakistain, Trueba...).

Zenbait geiegiokeri romantikoz apaindurik egin zala, ezik, garai artan gure gauzaen apologia: jakintza jatorrezko oiñarri aundi gabe, ale-

gia. Ori ere egia bait da. Eta ori da nunbait, beste askok ere bezela, gure. A. Arrinda'k bere liburuaren sarreran salatzen duan euskaldunon erri-kontzientziarik-eza.

Kontzientzi-utsune orren puska bat —jakintza-utsunea— betetzera datorkigu, ain zuzen, gaur, gure adiskide A. Arrinda Jauna, bere liburu bikain au galtzarbean dakarkigula: gai ontan —jakintza-gaietan— euskaldun askok eta askok beren Erriari buruz duten ez-jakiñaren utsunea betetzera.

Ondo etorria dedilla! ondo etorria!

* * *

Liburua, leenagoko «Religión prehistórica de los vascos»-en laburpena da. Eta erderazko izen onek adierazten du ongitxo bioen gaia.

Kristautasuna baño leenagoko gure asabaen sinismen zaarra azaltzen digute batak eta besteak. Azaldu, bai; ezkutuan arkitzen bait da gaur, geroztikako Kristaia-Sinismenaren alozetan, plegadizoetan ezkutaturik. «Muru-Mendiko Mari» dala, «Anboto'ko Damea» dala, Atarrabi ta Mikelats dirala, ireltxoak eta lamiñak dirala... Zer ez?

Eta jakingarriak bait dira gauza guzti auek; ez entretengarriak bakarrik, «oraintsu arte» izan zaizkigun bezela; jakingarriak, ikasgarriak baidarik, gai guzti oiekin Etnologi-Jakintza sakon bat

sortzeko, gure asaba aien izaera ondo ezagutuaz, gure Erriaren, amabi milla urtean zearreko aldakuntza ta eboluzioak nola izan diran, alik ondoen ezagutuaz...

Eta ez noa beste geiago esatera.

Liburuak berak erakutsiko dizu, Irakurtzaille, gaiaren jakingarria. Eta errex asko erakutsi gaiñera. Oso irakur-errexak bait da, irakurtze errexenak maite dituanarentzat ere.

Zuk ikus.

Lekuona'tar Manuel'ek

ATAKA

Gu, Euskaldunok, beti izan gera norberekiko.

Bakoitza bere etxearen jaun da errege ta iñoren menpean eziñ-egonekoak. Alaz ere, erri-konzientzirik ez degu izan oraintsu arte... Beti anai-arteko burrukarako prestu...

Geure gauzak estimatu ez... Kanpokoa, ohea... Baña, besteenatik artutakoak gure odol biurtzeko ahalmena izan degu, orratio. Ez genduan guk txapelik asmatuko, baña geure-geuria egiñ, bai... Pelotan, gure aurretik egingo zuten beste erri zahar batzuek ere; guk, ordea, geure erara jokatu degu pelotan ta geure bizi-moduan sartu ditugu pelota ta txapela, biak «euskaldun» egiñ arte.

* * *

Geure izateari eutsi diogu, mendiak lagun ditugula...

Izate orren sustriaiak mendietan daude, ta sustriai oiek Prehistoriraño eltzen dira... Prehistoriaren berriak jakiteko, Euskalerrria oso bide interesgarria da ta egokia...

Euskalerrria galduko ba'litz, Europa'ko sustratum edo dana dalako ori ezagutzeko biderik onena galduko litzake, Euskalerrriarekin batera... Galera ederra izango luke Yakintzak.

Euskalerrriko mami ta muñetan sartuta, Prehistoriako Aroari argi-egiten ote diogun, gabil-tza. Bideak, koba-zulo ta euskal-gogoa izango ditugu. Bietan diraute (modu berdiñetan ezpada ere) Prehistoriaren berriak eta egiak...

* * *

Koba-zuloetan gelditu ziran, Histori-aurreko euskaldunen zenbait arrasto; ta, bizi geranon anima-zuloetan, berriz, orduko zenbait pentzakera ta sinismenkeri, ankaz-gora ta nahasian ba'daude, ere...

Iraun dute, beintzat, gaurko egunerarte.

Ez da, eten osorik izan, ordutik ona.

Oraintxe degu etenaren arraixkua; kultura ta arnasa berri auek ebagiko digute Euskalerrri zaharrarekin genduan lotura... Ala ba'litz, Prehistorirako bideak galduko giñuzteke betirako.

Etenak lotu, utsuneetan zubiak egin; eutsi gu-reari...

Erne, Euskaldunak; berandu dedin baño lehen.

I

ZENBÁT GERA?

Gure gaurko eguneko Euskalerrria ezagutzen badegu, gure aurrekoen ezaupidea egiteko bideak erabilliak izango ditugu.

Ez bide gutxi erabilli ere.

Bide seguru ta ziurrak.

Gaur gure artetik asi ezkerero, jo dezakegu ahintziñako euskaldunen bizitza ezagutzerañoko guzian. Orregaitik gaurko eguneko Euskaldunen berri jakitea konbeni zaigu.

ZAZPI ANAI GERA

Auñamendi'ren bizkarrean bizi gera geienok.

Auñamendi, Pirene-mendiak dirala aspalditik dakigun gauza da. «Auñamendi» itza euskalduna dalako, geienetan beintzat «Auñamendi» esango degu guk Pirene-mendiren ordez.

Auñamendiko bizkar-ezurretik pasatzen da

gaur, Frantzi ta Españi arteko muga. Muga orrek erdibitzen du Euskalerrria.

Mugatik Frantzi aldera daude Lapurdi ta Xubero. Baita Nafar-behere ere; baña Euskalerrriko zati au, Naparroarekin bat egiñik egon da beti, oraintzu arte.

Naparroa, Gipuzkoa Araba ta Bizkaia mugatik Españiruntz daude.

Iru zati andik, lau emendik: orra, zazpi zati. Zazpi anai.

«Zazpirak bat» esan oi da.

«Zazpirak bat»-ekin agertu oi dan margazki edo dibujoak, sei eskudo ta arma-arri bakarrak ditu. Zergatik sei zazpi bearrean...? Lenago esan degun arrazoiagatik: Nafar-behere Naparroaren zati bat zalako. Biak bat ziralako, bien artean ez dago arma-arri bat besterik. «Boskarren Merindade» «La Merindad de Ultrapuertos» deitzen zioten naparrak Nafar-behere arri.

* * *

Euskaldunik asko ba'da mundu zabalean zear... Gaurko Euskalerrria, ordea, zazpi zati auetan dago.

Gero ikusiko degun bezela, gaurkoakin konparatu ezkerro, lehenagoko Euskalerrria gaurko egunekoa baño zabalagoa zan: aspaldiko urteetan familia urritzen joan zaigu... Ori asko ezta-la, Euskalerrriko bere zenbait seme euskera aztu-

ta dabilta, eta euskera ez dakien euskotarra ez da euskalduna...

Euskalerrriko seme guziak ez dirala «euskaldun», alegia.

Ezta gutxiago ere.

Ahaspaldiko urte auetan etorritako kanpotar ta guzti, osta-osta osatzen ditugu bi millo, euskaldunok.

Erri txikia gera.

Oso urria.

«Eman-da zabalzazu munduan frutua...» abestu oi zuan Iparraguirrek. Mundu zabalean zabaldu du Euskalerrriak bere frutua. Semerik onenak bialdu ditugu etxetik kanpora.

Ugari ta neurri gabe.

Etxetik kanpora frutua ugari bialdu ezkerro, etxea urri, melar, arlote gelditzen zaigu...

Euskalerrria odol-ustu zitzaigun.

ERRI TXIKI, ERI BAKAR

Aiñ txikia izan arren, ezaguna da Erri au munduan zear.

Zergatik?

Gauza batzuetan iñor ez bezelakoa dalako.

Isla edo ugarterik ikusi al dezu beiñ ere?

Lurra, urez inguraturik: orra zer dan ugar-te bat. Ura besterik ez bere inguruan; baña be-

ra, ugartea, ez da ura; bera, lurra da. Euskalerrari gertatzen zaiona ere orrelakoxea da:

Europaren ertz batean, or dago Euskalerrria, beste erri ta arrazaz inguraturik; bere senidekorik, ordea, ez dago bat ere erri ta arraza oien artean...

Senide gabe.

Bakarrik: ugartea itxasoaren erdian bezela...

* * *

Aizkeneko eun-da-berrogeita amar urte auetan makiña bat jakintsu urbildu da guregana, jakinmiñak eraginda...!

Zertara?

Gaurko eguneko Euskalerrria ezagutu ta bere aurreko aztarnak billatzera.

Baztar guziak zeatz aztertu dituzte, bide ta bidezka guziak ibilli, astarrenik nundik aterako... Bere lanak alperrikakoak izan ezpadira ere, gauza garbirik ez digute oraindikoz agertu ta erakutsi.

Euskalerrriko sortzea, oraindik, lañopean degu.

Illunpean.

Illunpe orretan argi apurren bat ba'da: orratik krisalluren batzuek piztuta daude. Krisallu oien argitara zer ikusten dan begiratuko degu, esku artean dakargun lan onetan.

* * *

Erriarekin gertatzen dana, gertatu oi da euskal mintzairarekiñ ere: Gure euskera ederraren asiera ta iturbururik ez dala iñundik agertzen.

Euskeraren seniderik ez da iñun.

Munduko izkera guzien artean, or dago bera ere bakar-bakarrik.

Ezagunik gabe.

Seniderik gabe.

Famili gabe.

Euskalerrriarekiko misterio onek lilluratzen ditu jakintsuak.

Eziñ argirik atzeman orrek irrikatzen ditu, Euskera ta Euskalerrriaren iturburu-billa, geroz da amorru geiagoz saiatzeko. Abentura oberik ez dago, gaurko egunez zenbait jakintsurentzako!

* * *

Euskalerrria bakarra dala ta Europako erririk zaharrena, ori jakintsu guziak aitortzen duten gauza da: orretan guziak alkar bat-egiñik daude aspalditik.

Antxiñako Euskalerrria ezagutzeko, ordea, oraingo Euskalerrria ezagutzea dala biderik onena, orañ arte ez dira konturatu. Bañan gaurko egunean orretan ere alkar artuta daude jakintsuak.

Euskalerrria, Historiaren aurretikoa dalako, bere gaurko izakeran Prehistori-erako zenbait

gauza ikusi ta ikasi genezake: gaurko Euskalerrian antxiñako Euskalerrriak irauten duelako oraindik. Orra zergatik, gaurko Euskalerrria ezagutzeari ekin dioten jakintsu askok, orain dala berrogei urtetik onera.

EUSKALDUNA GORPUTZEZ

Goazen gaurko euskaldunen berri jakitera.

Antropolojiak, errien soñ edo gorputza du jakin-gai:

gorputzaren neurriak,

azalaren kolorea, illeena edo begiena...

Baña, batez ere, buru-egur edo kalabera.

Buru-egurren luzero, zabalero, mutur, sakon ta koska guziak zearo miatuta gero, euskaldunak, gai oneri buruz, tipo berezikoak gerala, esango digute antropologoak.

«Raza Pirenaica Occidental» jarri diote tiporri izena: «Auñamendi Sarkaldeko Arraza».

* * *

Euskaldunen gorputzaren neurriak, Frantzi ta Españakoenak baño aundiagoak dirala, esaten digu Jauregiberry jakintsuak, 1947'garren urtean Bordeaux'en argitaratutako liburu batean. Neurketak egin berriak ziran. Aundiagotasun ori, Frantzi-aldeko euskaldunen artean agertzen omen zan (Xuberoan, batez ere) nabarmenki: Xuberota-

rrak 1,70 metro batez-beste; Frantzian, berriz, 1,64; eta Españian, 1,63.

Arrigarriena orain datorrena da:

ODOL BEREZIA

Giza-artean odol-mota asko daude.

Gizon baztuen odolean, «A» deritzan elemento kimiko bat arkitzen da. Beste batzuetan, berriz, «B» izenarekin ezagutzen dan beste elemento bat. Ez «A» ta ez «B» ez dutenak, oiek dira «O» tipokoak: utsak, alegia. Beste odol batzuetan, «A» ta «B», elemento biak arkitzen dira.

Orra lau tipo-klaseko odolak: «O», «A», «B» ta «A+B».

Arlo oneri buruz, konparatu ditzagun Frantzia, España ta Euskalerrria. Ona emen konparazio ortatik zer agertzen zaigun:

	(Frant.)	(Españ.)	(Eusk. E.)
«O» taldekoak:	43,3%	39 %	57,2%
«A» taldekoak:	42,2%	47,7%	41,7%
«B» taldekoak:	11,1%	8,9%	1,1%
«A+B» taldekoak:	4,4%	4,4%	—

1954 ta 1959 egindako liburuetatik artuta daude berri auek.

* * *

Goiko lerro oietatik ateratzen zaizkigun erakutsiak, auek dira:

1. — «O» taldekoak asko diralako euskaldunen artean, Euskalerriko odola odol garbia da.

2. — «A» taldekoak ere asko diranez, sartaldekoak (ozidentalak, alegia) ta ifar-aldekoak omen gera euskaldunok.

3. — «B» taldekorik ez dago ta, ez gera sartaldekoak, orientalak (ozidentalak, baizik).

Itz batean:

Euskaldunak odol garbikoak, ozidentalak, ifar-aldetikoak gerala, eta inguruetakoekin desberdiñak.

Orra zenbat gauza, gaurko euskaldunen odolak agertu...!

Buruko ezurren estudiantik, «Añamendiko Sartaldeko Arraza» «Raza Pirenaica Occidental» giñala atera ziguten; orain, berriz, odoletik gauza berbera aterako digute: nahastu gabeak ta Europako ozidentalak gerala, alegia.

Europarrak, sartaldekoak ta garbiak (beste arrazakin gutxi nahastuak).

Beste era batera esan-da:

Emengoak gerala, emen bizi gerala aspaldidantik (gure ezurak eta odola formatu ziran ezkerroztik)...

«A» taldekoak Europako ifar-aldetik bizi oi diranak dira.

«B» taldekoak Europaren orientaldekoak dira. Euskaldunen artean elemento «B» ez dago ta,

ez gera Asiatik etorriak... eta andik etorri ba'giña, elemento «B» Asian sortu baño lenagotik etorriak bear genduke izan ...

ELEMENTO «Rh»

Giza-odolean beste elemento kimiko billatu berria degu: «Rh».

1940 urtean arkitua.

1945'an Etcheverry medikua, euskaldunen artean elemento «Rh» ori etzala ugaria, konturatu zan.

Euskaldun askoren odolean palta zala.

Afrikako beltzeen artean eunetik bostek (5%) palta du.

Asiako orien artean ez da bat ere palta duenik (0%).

Azal zuriko giza-artean, eunetik amabostek (15%) palta dute.

Ta Euskaldunen artean zenbatek palta dute elemento «Rh.» ori?

378 Arjentinako euskaldunak aztertu ondoren, eunetik ogeta amalauk etzuala elemento «Rh.» (34%), igarri zion Etcheverry jaunak. Arrezkero Euskaldunen artean beste examiña, analisis ta azterketa asko egin dira: eunetik ogeta amabost (35%), ogeta amar (30%), ogeta zortzi t'erdi (28,5%)... izan dira «Rh.» gabekoak. Baña Fran-

tziko euskaldun baserritarren artean, eunetik berrogeta bik (42%) etzuten elemento ori.

* * *

Zer erakutsi eman nai digute gertaera auek? Lehendik ikasita daukagun gauga bat:

Odol berezia, garbia, ozidentala, bere ingurukoek ez duten bezelako odola dutela Euskaldunak...

Etcheverry jaunak dionez, Euskaldunak Europa zaharreko zatirik garbiena gera... Prehistoriako Europako errietatik gelditzen dan zatirik bereziena...

Europako «Rh.» gabeko jendeak Euskalerritik zabaldutakoak omen dira... Europak dituan eunetik amabots (15%) oien iturburua Euskalerrian dagoala, alegia... European amabost eta Asian batere ez; Euskalerrian, berriz, ogeta amarretik gora. Asia ta Euskalerrian bitartean dago Europa, ta Europak Euskalerritik artu duela «Rh.» gabetasun ori esatea, etzait burugabekeria danik iruditzen. Alderantziz, arrazoi-bidean dargala esango nuke.

Afrika Atlas mendietako Berebere tribu eta Kaukasoko Noroesteko erri bereizi batzuk gure antzekoak omen dira, odol-arazo oneri buruz...

ITZ BIRETAN

Euskaldunak antxiñako europatarren semeak gera. Aietatik sorturiko erri garbirik ez dago bes-

te bat, Euskalduna besterik. Beste guziak, geroztik etorritako erri ta arrazakin nahastu ziran; nahaste ortatik sortu dira euren odoletan ainbeste elemento kimiko («A», «B», «A+B», «Rh.» ta abar...). Oiek dira nahastearen ezaugarri. Gure artean orrelako elemento gutxi dagoalako, gera odol zahar ta garbiagokoak...

Erri zaharra izan arren, erri garbi ta gaztea. Seniderik gabea.

Berekin zer ikusi askorik ez duten erri ta arrazaz inguratua.

* * *

Odolari gertatzen zaiona, gerta oi zaio mintzairari ere.

Erria ta bere espiritua, odola ta bere izkuntza, garbiak diraute oraindik.

Noiz arte?

Gure Erriaren etorkizuna gure eskuetan dago.

II

NOIZKOAK GERA?

Antxiñakoak, Europako erririk zaharrena, gerala, odoletik ateratzen degun gauza da. Egi orretara beste bide batzuetatik iritxi nai genduke oraingoan.

Bi klasekoak dira beste bide oiek, Yakintzak erakusten digunez.

Ona emen biak:

1. — Arkeologia-bidea (ildakoen bidea).
2. — Etnologia-bidea (bizi diranen bidea).

ARKEOLOGI-BIDEA

Au, «ildakoen bidea» dala esan degu.

Bide oneri jarraituaz, Prehistoriraño elduko gera. Orduko Euskaldunen bizi-modua nolakoa zan: nun ta nola bizi ziran, zer jantzi ta zer jan, ze ofizio ta ze lan-bide...

Zergatik esan degu Arkeologia «ildakoen bidea» dala?

Aspalditxoan ildako gure aurrekoak, orainarte iraun duten zenbait arrasto ta erreus utzi ziguten... Prehistoriako Euskaldunak jandako abere ta animalien ezur ta adarrak makifia bat ba'daude, eurak bizitako koba-zuloetan...! Ze animali? Zaldi, zezen, basauntz, leoi, artz, otso, axari ta abar... Oietatik ateratzen zuten beren eguneroko jakia gure arbasoak. Aien zenbait ezurrezko, bai adarrezko edo arrizko instrumentu ta tresna ere billatzen dira leize-zuloetan... Ze tresna diran jakin nai zenduke...? Ona batzuek: aizkora, aizto, atxur, zulakaitz, jostorraz, artasi edo goraiza, amu, gezi... Eztira gaurkoak instrumentu oiek...! Zer geiago arkitzen da gure aurrekoen «etxe-bizitzatan»? Itsas-ertzeko muskullu, lapa, mangoliño ta txirlen azalak ugari... ta noiz beinka, arraien bizkar-ezurak... Lur errea ta sutautsa beian; ormaetan, berriz, pintura ta margazkiak ugari... Ederrak, ala ere...!

Beste gauzatxoren bat ere utzi ziguten mendigallurretan: izugarrizko illobiak arri galantez egiñak (treku-arri edo jentil-arri... dolmenak, alegia).

* * *

Gure aurreko Euskaldunen bizitza ezagutzeko, orain esan ditugun arkeologiako gauza oiek dira, guretzako, bide zuzen, bide zihur eta segurua.

Kobaetan bizi ziran artean, lur-gañean geldit-

zen ziran jandakoen ezur ta azal, jan ondokiñ eta erreusak, zabar eta ondarrak, koba-atetik sartzen zan autsarekin eta eurak oñetan zerkarke-tan lokatzarekin nahastean... Nahaste oiek, denborarekin, pixkanaka-pixkanaka, bata bestearen gañean pillotuta, estrato asko moldatu zituzten, malla-xerrenda asko...

Estrato ta xerrenda oiek aztertzea naikoa da, len esandako gauza oiek guztiak azaltzeko gure begien aurrean. Gauza bakoitzaren edade ta aroa, gauzak alkarren artean dituzten zer-ikusitaki ta artu-emanak, estrato edo xerrenda oien bidez ezagutzen ditugu, bata bestearen gañean egin ziralako eta orrela agertzen diralako... Azpian dagoena beti izango da gañekoa baño zaharrago...

Aspaldiko errien berri, gora-beera, zahartasun edo gaztetasuna, estrato oien bitartez ezagutzen ditugu... Yakintza oneri Prehistoria edo Histori-aurrea esan oi zaio.

Histori-aroko berriak beste era batera lortu izan ditu gizonak.

Nola?

Paperetan edo arrietan idatzita ta eskribituta, batez ere.

Baña, Prehistoriako berriak ez daude idatzita inon, gaurko eguneko idazteko moduan, beintzat. Ala ere, beure berri ba'dakigu Arkeologiako bideetan zear ibilli ezkerero...

ETNOLOGI-BIDETIK

Bizi diranen bideak.

Bi klasetakoak dira bide auk.

* * *

Lenengo klasea:

Mundu zabaleko azken-baztarretan gordetako erri asko, antxiñako gizonaren eran bizi dira oraindik.

Gizartearen Historia edo Kondaira korrika-apostu baten antzekoa da: iturri batetik sortu ta elburu edo meta batera dijoaz, eten gabeko laisterketan erri guziak... Baña laisterka onetan erri batzuek oso bizkor ta azkar ibilliak dira, ta berrogeigarren kilometroan dijoaz... Beste batzuek, berriz, oso patxaran ta trankil (era-bat gelditu ezpadira) ta bostgarren kilometroa egiteko daukate oraindio... Iruugarren klaseko erriak ere ba'dira: auk, asieran, oso bizkor jokatu zuten: lenengoko ogei kilometroak tximistaren antzera egin zituzten; gero, ordea, plot-eginda, bertan lo gelditu ziran sekulako...

Atzeratutako erri primitibo oiek, Histori-aurreko erriak bizi ziran antzera, bizi dira: armak arri, ezur edo adarrezkoak dituzte, zurezkoak ezpadira... ta oiturak ere, alako moduz...

Gure aurrekoen bizi-bidea ikasteko, ez da bide txarra, erri auen joka-bidea aztertzea ta estudiatzea... Gu aspaldi pasa giñan bostgarren kilo-

metrotik: bear bada, Prehistorian bertan. Gu orduan nolakoak giñan jakiteko, ez da itxuragabeko bidea izango, gaur bostgarren kilometroan dijoazen erriak ezagutzea...

Esate baterako begiratu dezaiozun aizkorari: ba'dakigu Histori-aurreko Euskaldunak aizkora arrizkoa erabiltzen zutela... baña aizkora orreri kirtena nola erasten zioten ez dakigu. Berri ori gaurko eguneko erri atzeratuetan ikasi genezake...

Ta orrelako zenbait gauza ere, bai.

* * *

Ona bigarren klaseko bidea:

Teilhard de Chardin jakintzuak dionez, oraindik orain asi gera gizonok Prehistoriko amarrak largatzen: asiera-orduko bizi-modurik ez degula era-bat aldatu, alegia. Gizarteko jakinduria, pentsakera, bizikera ta abar, Histori-aurreko gizonak erakutzita daukagula... Auxe berberau esaten zingun D. Jose Miguel Barandiaran'ek orain ogeta amar urte luze...

Ori ala ba'da, gaurko gizarteari ondo arretaz begiratuko ba'genio, zerbait ikasiko gendukela uste det, gure aurrekoen jakinduri ta bizikerari buruz...

Ta gauza onek erri guztientzako balio ba'du, Euskalerrirako, areago.

Zergatik?

Gure Erria, Prehistoriko aroetatik, etenik gabc datorrelako.

Erri berbera da.

Gauza askotan aldatua izango da; baña, emen ez da erririk eten, ez da aria ebagi ordutik ona... Gu ordukoen seme gera, senide artetik aldatzeke; euren lur-gañean bizi gera, tokitik aldatzeke... Ez da arritzekoa gure artean euren kutsuak irautea; euren gauza asko baño geiago gure artean segitzea... batez ere, baserrietan.

* * *

Sekula izan ez dan etena, gaurko egunetan izan leike sekulakoa.

Etena sortu baño len, bildu ditzaigun gure artean dauden antxiñakoen astarnak eta arras-toak...

Gero, erremediorik ez danean, negar egitea alperrik izanen da.

NOIZTIK GAUDE EUSKALDUNOK AUÑAMENDIETAN

Arkeologi-bideetatik aurrera joanda, gizonaren aztarnak oso antxiñakoak arkitu oi dira Pirene-mendietan.

Auñamendi ta bere inguruetan antxiña-antxiñatik bizi da *gizona*.

Histori-aurretik.

Prehistoriatik.

Baña... *Gizon euskalduna*, noiztandik...?

* * *

Euskalduna, Kristautasuna sortu baño millaka urte aurretik Euskalerrian bizi zala, zihur-zihur esan genezake, bai Arkeologi ta bai Etnologiari eskerrak.

Erri onen gauzarik arrigarriena auxe da:

Beti bat iraun duala erri ta izkuntza bezela... Urteetan zear gauza asko aldatu ba'zaizkio ere, erria, izkuntza ta erriaren moldea, gureganaño eldu da... sustraia, mamia, muña, era bat aldatzeke.

* * *

Euskalerria, erri bakarra.

Ugarte edo isla.

Orrek ez du esan nai iñorekin artu-emanik izan ez duanik.

Artu-eman ugariak izan ditu beti bere inguruko erriekin. Gauza asko ta asko artu ditu bere ingurutik; baña, artu dituan oiek bere erara artu ditu; odol ta aragi biurtu ditu, bere leengo anima berezirik galdu gabe...

Euskera ere, erderatik itzak artu arren, beti euskera gelditu da: bere izakeran, bere joskeran, bere muñean, bere animan aldakuntza aun-

dirik gabe... Orobat gertatu oi zaio Euskalerriri beste bere kultura-gai askotan ere.

Beste errietatik ikasiak, milla modutako gauzak billatuko ditugu Euskalerriko pentsakeran; baña ez du orregaitik euskal-erarik galduko; ez du bere bereiztasunik galduko...

Jan-da-eraten ditugunak, gure aragi ta odol biurtzen ditugu, ta asko janagaitik, ez degu gure zertasuna, gure personalitatea, gure izena galzten... Berdin gertatu oi zaio Euskalerriri ere, jakintsu guzien arrigarri.

ANTXIÑAKO PALEOLITIKOA EDO PALEOLITIKO ZAHARRA

Historiaren aurretiko gaua, gau luzea gertatu zan gizartean.

Millaka ta millaka urteak pasa ziran (zeñek daki zenbat!) gau luze artan. Prehistoriako egun-sentiaren argi-nabarrean, lauso ta laño artean, agertzen zaigu Histori-aurreko gizonaren bizitza...

Prehistori orrek zenbat-añako gau luzean irauan zuan, garbi ez dakigu, oraingoz beintzat. Prehistori orren tarte ta aroak oso bait-dira luze ta lausotsu...

* * *

Denbora aietan aldaketa izugarriak eraman

zituan lurrak: izotzetik berora, ta berotik izotzera...

Otzaren etorrerarekin alde-egiten zuten, giro beroa bear duten animalia, abere ta zugatzak; be-roarekin, berriz, izotzetan bizi diranak alde-egiten zuten... Juan-etorri auek millaka urteak dituzte tartetan.

Burruka latzak iragan zituan lehen-gizonak, bai eguraldi-aldaketakin, bai animalien oiturekin ere.

Burruka bizia.

Burrukan ekin bear bere inguruko guztiekin, gizonak lur-gañean iraungo ba'zun.

Burruka ontatik sortu zuan gizonak bere soñ gogor, tinko, zimela...

Begi-belarriak, argi...

Burruka luze ikaragarri oien ondoren, gizonaren adimena indar guzien nagusi ta jabe gertatu da. Berak menperatu ditu abere, erreka, itsaso, zugatzak... Izadi guzia bere menpeko du... gaurko egunean.

Baña, bitartean... zenbat neke...?

Zenbat burruka...?

* * *

Ortzak eta atzaparrak biguñak ditu gizonak, animalia ta piztien aldean.

Oietan aberea jaun-da-jabe.

Pistia, nausi.

Baña, gizonak buruan zuan argia, animaliek ez beste. Ta argi onen bitartez burukatu zuan animalien indar itxua.

Nola?

Lenengo ta bat, zugatzetik adarrak eten, makilletarako... ta bide-baztarreko arriak artu arrika-egiteko... Oiek izan ziran gizon arren bere lehen-armak.

Asieran, arma oiek, Izadiak eskeintzen zizkion bezela, artzen zituan. Gerora, ordea, egur ta arri oiek lantzen ikasi zuan. Ta ez ori bakarrik, animalien ezur ta adarretatik armak ateratzen ere ikasi zigun. Armakin batera, lanerako tresna ta instrumentuak ere, bai...

* * *

Zorionekoa, gizonak sua ateratzen eta zaintzen lortu zuan eguna! Animalia ta piztiak menperatzeko, otzari iges-egiteko, metalak urtutzeko, suak eman zion indarra eta era gizonari. Gizonaren Histori guzian ez da alako egunik argitu, otomiko-indarra menperatu duan arteraño... Arritzekoa al da Teilhar de Chardin'ek esandakoa? Oraintxen ari general Prehistoriatik ateratzen, itsasontziak amarrak eta txikotak largatzen dituan unean bezela, itsasorako danean...

Gizadiaren ontzia, une onetan ari da, Prehistoriko kaetik irtetzen, itsas aundian bogatzeko...

Aitz-zuloak ziran etxe-bizitza egokiak gizonan-

tzat; baña, abereentzat ere, bai. Orra burrukarako gai egokia. Burrukan egin zuten beren artean gizonak eta pistiak, leize-zuloak zirala-ta... Burruka onetan ere, gizona, garaille: beretzat kobae-tako etxe-bizitzak!

Etziran gizon guztiak leize-zuloetan bakarrik biziko; txabolak ere egingo zituzten; aien arrastorik gelditzen ezpada gaurdaño, ez da arritzeko, gai ustelkorrez egiñak ba-it zeuden...

* * *

«Antxiñako Paleolitiko Aroa» edo Paleolitiko Zaharra (Paleolítico Inferior); gizonak, arma ta tresnatarako, arri landua erabilli zuan garaiari esaten zaio izen ori.

Asiera batean, lurak eskeintzen zion bezela artzen zituan gizonak arriak eskuetan. Urteak pasa-ala, arri oiek lantzen ikasi zuan: borobiltzen edo luzatzen edo zorrozten.

Antxiñako Paleolitiko Aroan gizonak erabillitako arri-landuzko arma ta biarrerako tresnak, koba-zuloetan iraun dute gaurdaño. Ortxe agertu dira berealdiko saill osoak.

GEROZTIKO PALEOLITIKOA TA GAURKO EUSKALDUNAK

Gizonak arri-landua erabillitako garaiari Paleolitiko deritzaiola esana daukagu. Baña Paleolitiko orrek, urteak oso luzeak ditu. Denbora luze, esi garbi-gabeko ura, bi alditan erdibitzen da.

Auek dira bi alderdi oiek: Antxiñako Paleolitiko Zaharra (Paleolítico Inferior) ta Geroztiko Paleolitikoa (Paleolítico Superior).

Kobaetako estratoak bata bestearen gañean egin zirala, ba'dakigu. Azpikoak zaharrago dirala, ere bai. Azpian daudenak dira Antxiñako Paleolitikoan (Paleolítico Inferior) sortuak; gañekoak, berriagoak, Geroztiko Paleolitikoan (Paleolítico Superior) egiñak.

Geroztiko Paleolitiko-Arotik asi giñezke, orduko erri bateri Euskaldun izena ezartzen: gaurko eguneko Euskaldunok ordutik gatzozela, alegia.

Euskalerraren kultura berezia, biotz-muñeko etenik gabea, esplikatzerik ez legoke, erri au, urteetan zear, bat izan ez ba'litz gaurdaño... Lehen Euskalerrak ill edo emendik alde egin ba'lu, Euskalerraren kulturaren eten aundi bat legoke, oso-osoko etena... Gure kulturaren ariak, ordea, zuzenean dijoaz egun illun aietaraño...

Oraingo Euskaldunak orduko Euskalerraren senide gerala esateko eskubidea ba'degu.

* * *

Antxiñako Euskalerrri zahar ura nundik etorri ote zan?

Iñundik etorritakoa danik ez dakigu.

Arrezkero emen bertan dagoala, ori bai ba'dakigula. Beste iñundik etorria danik, ori ez da iñolaz ere agertzen.

Garai aietan ba'zan Auñamendiko ingumarietan (Europako lurraldeetan), Cro-Magnon (*Homo Sapiens Fossilis*) deritzaion erria, Antxiñako Paleolitikoan bizi ziran errietatik oso aparteko ta desberdiña. Oraingo europatarren antzekoa; izan leike Afrika Ifarraldetik edo Asia Txikitik etorria.

Cro-Magnonekin zer ikusirik ba'ote du Euskalerrriak?

Leikiena da.

Deba'ko Urriaga leizean, billatu zituzten, orañi ogeta amabi urte, buru-ezur edo kalabera batzuek. Aietatik zaharrenak (azpienetako estratoetan zeudenak), Cro-Magnonen antzekoak dira; baña, berrienak (gañeko estratoenekoak) gaurko Euskaldunen tipokoak dira. Bien artekoren bat nahastekoa zan: zerbait Euskaldunen ta zerbait Cro-Magnoenn antzeko. Denak, ordea, Geroztiko Paleolitikokoak ziran.

Urriagako aizkeneko buruezur oiek (azaleko estratoetan zeudenak), beste Euskalerrriko koba ta dolmenetan billatu diranak bezela, gaurko Euskaldunen buru-ezurren antza dute. Amabi milla urtean zear Euskalerrriak bere kalabera-ezurrrak oraingoan antzekoak izan ditu: kalabera bereiziak; beste bere inguruko errietan ez dituzten bezelakoak; zenbait mota ta ertzetan osteantzeko ta desberdiñak...

Noizkoak geran?

Ordukoak: amabi milla urtetik gorakoak.

Arrezkero emen gaude, Auñamendi-ren inguruan.

Odol berezi, kalabera-ezur berezi, mintzaira berezi...

Erri berezi.

Ez degu esaten beste erriak baño ohea edo txarragoa danik: erri berezia ta aparta dala esaten degu.

Egia dalako esaten degu, esan ere.

Ez dago emen razismorik: egiaren billa gabil-tza: gure Erriaren egia...

Ona emen Euskalerriko egia esan.

III

NUN GIÑAN?

Auñamendian eta aren inguruetan bizi giñan.

Pirine-mendiak eman digu beti bere babesa ta aterpea. Eraso ta burrukaldi guztietan, Auñamendi'n eta aren egaletako mendietan izan du beti Euskalerrriak bere gordeleku.

Frantzi ta Españaren tartean daude Auñamendiak; baña, mendi-katea España aldeko egaletatik aurrera dijoa, Asturias alderarte: Kantauri-mendiak, alegia. Frantzi partetik, berriz, Akitaniaren beste aldetik, Dordoña-ibaiaren mendiak daude Auñamendiren aurrez-aurre sortaldetik.

Bien bitarte ortan billatzen ditugu Paleolitiko-Euskalerrriaren aztarna ta lorratzak. Beerago (egoalderuntz) edo gorago (ifarralderuntz) euskal arrastorik ez da. Izan zeizkian ta izango zirala uste degu; baña, ori probatzerik gaur ez dago; biarko eguneko jakintsuak, artarako bide obeak billatzen ba'dituzte, probatzerik, benturaz, izanen dute...

«FRANKO-KANTAURI KULTURA»

Asturiastik asi, Kantauri mendiak igaro, Auñamendi guzia pasa ta Dordoñako mendietara eldu...

Orra mendi luzeak...

Orra bide luze...

Mendi-saill oietan koba, leize ta arkaitz-zuloak ugari. Zuloetan bizi ziran Paleolitiko-gizonak.

Gure arbasoak.

Gure aurrekoak.

Gure Euskalerrria ez da gaur ainbeste zabal-
tzen; ori, ez. Baña, mendi-guzti oien erdi-
parean, danen «ardatz» ba'litz bezela, dago gure gaurko Euskalerrri...

Aldamenak eta egalak galdu ditu; muñik eta mamirik, ez. Arbola zaharraren antzera, ertzeko adarrak igartu zaizkio; trunkoa edo enborra, sustraiak eta erdi-erdiko adarrak, ez, oraindikan beintzat. Oiek eze agertzen dira.

Zugatz zaharrari bizirik irauten, kimu berriak sort-arazten lagundu bearko diogu...

* * *

Leizeak, kobak ugariak dirala esanik dauka-
gu. Eman dezagun leize-zulo oien berri.

Altamirako leizea izen aundikoa da mundu zabalean. Euskalerrriko ertzean dago: Santanderren. Ingumari aietan (Santandertik Asturias

aldera) ba'daude beste asko ere. Ona koba aietako batzuen izenak:

Pindal, Balmorí, Cueto de la Mina, Las Cobe-
rizas, Lledias, Collubil, Cándamo, Franca, Las He-
rrierías, Loja, San Antonio, San Pedro de Nova,
La Paloma, Buxu... (auek denak, Asturiasen).

Del Castillo, Hornos de la Peña, Clotilde de
Santa Isabel, Aguas de Novales, Meaza, ALTAMI-
RA, La Haza, Del Valle, Salitre, Rascaño, Camar-
go, El Pendo, Santián, Cobalejo, La Pasiega, Co-
balanas... (Auek, berriz, Santanderren). Euska-
lerritik, sartaldera.

Oraingo Euskalerrrian daudenak:

Sotarriza, La Perra, Bortal, Lumentxa, Armi-
ña, Bolinkoba, Balzola, SANTIMAMIÑE, Jentil-
zubi, Polvorín, Koba-ederra, Atxurra, Ondaro,
Atxuri, Aizkoltxo, Ermitia, Urtiaga, Lezetxe, Amal-
da, Aitzbitarte, Zuñiga, Berroberia, ISTURITZ,
San Martín de Arberoa, Haristoi, Lexotoa, Sor-
gin-lezea, Axilondo, Lezia, Olha, Ilbarritz, Muli-
ña, San Pedro de Irube, Buheben, Anglet, Miko-
teau, Kaxiño, Uriogaina, Nabasia, Sasisiloaga ta
Etcheberriko-karbia.

Euskalerritik kanpora, Frantzi aldetik dau-
den kobak:

Madelaine, FONT-DE-GAUME, Combarelles,
La Mouthe, LASCAUX, Pech-Merle, Niaux, Labas-
tide, Marsoulus, Montespan, Aurignac, Moustier,
Tourasienne, Mas d'Azil, Cro-Magnon, Bruniquel,

Pair non Pair, Cap Blanc, Espélugas, Laussel, Ruth, Chapelle-aux-Saintes, Rouffignac...

* * *

Koba auek, guziak, «Franko-Kantauri» Kulturakoak dituzu eta jakintsuen eskuetatik pasatukoak... Kultura orren erdi-aldean daukagu gaurko Euskalerrria, beraren muña balitz bezela.

Leize oiek ez dira diran guztiak; asko egongo dira illunpetan, suerte on batek argira ekarri arte 1962'garren urtean, Urrillaren 28'an, suerte ori izan zuten iru gaztek Aya-Orio'ko arrobi edo kantera batean sortutako zulo batetik sartuta, «Altxerri» koba argitara bait zuten, bertan illunpeak gordeta zeuzkan marrazki ta pinturekin batera.

Zenbat ote daude gure zai...?

* * *

Leize auek gure aurrekoen jauregiak ziran.

Batzuek, ordea, eliza ere bai.

Esana daukagu leize-zulotik kanpora ere, asko bizi zirala; baña euren etxe-bizitzaren arrastorik ez degu, gai ta material ustelgarriaz eginda zeudelako. Gure errietan beste orrenbeste gertatu oi da gure gaurko egunetan: etxeak erori ta ondatzen dira, baña jauregiak, torreak, elizak, gazteluak... zutik irauten dute. Leize-zuloak, ar-

kaitz bizian egiñak daudelako, gure etxe, eliza ta torreak baño iraunkorragoak izan...

* * *

Leizeak, etxe-bizitzarako oso ziran egokiak.

Klimatizatutako etxeak ziran: neguan, beroak; udaran, otzak; ta piztien atzaparretatik gordetzeko leku onak, ateak larruz ta egurrez itxi ezkerio...

Koba-atarian, eguzkia arturik (eguteraan daude geienak), lan egiten zuten orduko gizonak. Kobeak ziran orduko lantegiak. Lantegia ta sukaldea alkarrekin zeuden...

Lurraren frutu ta igaliak, eizeko aragi ta larruak gordetzeko, koba-barruak eskeintzen zien toki aukerakoa...

Ura, leizean bertan zeukatzen, geienetan...

* * *

Bizitzarako egokiak izan arren, etziran beti etxe-bizitza izaten bakarrik.

Zenbait lezetan gauza miragarriak azaldu zaizkigu. Ba'ziran, gizon aien artean, artista paregabeak ere... Ormaetan utzi ziguten beren trebetasunaren agerpena: zoragarritzko margazki, pintura ta grabadoak... Ingurumari aietan bizi ziran animalien irudiak ugari...

Ze animalia?

Mamut, elefante, leoi, artz, otso, bisonte, ba-sauntz, zezen, zaldi, reno, basurde, axari ta abar... Txoriak ere, bai: arran, kurrillo, eper, ata, bela-beltz... Arbolaren bat, sareak eta giza-eskuak...

Orra zenbat gauza leize-paretaetan...!

Gizonaren irudirik, ez da azaltzen, mamu jantzita ezpada. Gizonik ez degu ikusiko pintura ojetan, animalien antzera jantzita izan ezik...

Askotan, marrazki oiek bata bestearen gañean eginda daude...

Beñ edo beste, animalien itxura ta irudiai burua palta zaie...

Leizearen zein tokietan daude marrazki aukerak?

Arritzekoa da orrelako pintura ederrik, bistan ta agerian ez egotea...

Bistan ez baño, leku illun eta bastartuetan egon oi dira beti orrelako edergarriak. Bertaraño joateko erreztasunik bat ere ez. Leku gaizto ta toki zalletan egin zituzten beren artista-lanak...

Berez diran bezelaxe pintatu zituzten abere ta piztiak: era askotan ibilli ta egon oi dira animaliak beren bizikeran: modu oiek guziak ikusten ditugu leizeetako orma zaharretan...

* * *

Gauza aukerak orrela izateak, buruausterik asko ekarri zien jakintsuai.

Zergatik pintura aukerak toki illunetan?

Zergatik ez da gizonaren irudirik arkitzen?

Zergatik (arrak batez ere) animaliak, beren gorputzetan, arma-arrastoak dituzte?

Zergatik emeak ez dute gañean, eriotza ekarri dezaieken señaletan?

Zergatik marrazkiak bata bestearen gañean?

Zergatik bururik gabeko animalien irudiak?

Zergatik...? Zergatik...? Zergatik...?

* * *

Ona jakintsuen erantzunak:

Toki illun ta leku gaitzetan badaude pintura, marrazki ta beste edergarriak, euren aurrean aztikeri ta sorginkeriak egiten zituztelako da ori... Orretarako jarri zituzten, dauden lekuetan.

Gizonaren irudirik ez dago, mamarro jantzita ta animalien itxuran ez ba'da. Zergatik, ori? Gizonaren animalia-antzeko irudiak, aztiaren itxurak diralako. Animalien antzera jantzita egiten bait dituzte auren aztikeriak, erri atzeratuen aztiak... Beste arrazoi bat ere ba'dago: aztikerietan sinisten duan erriak, ez du iñoren erretratorik nai: ez diote erretratorik ateratzen lagako iñori?... Zergatik? Erretrato edo irudia nere mende ba'dago, irudiaren jabea ere nere mende egongo dalako. Irudia menperatu ezker, irudiak agertzen duana ere menperatzeko aalmenak izango ditugu. Irudiaren eta bere gauzaren artean zer-ikusita ta artu-emanak daude. Indar bat dago

bien artean. Aztiak ba' du indar ori bereganatzeko aala. Aal onek ematen dio aztiari azti-izatea. Aalik gabe ez litzake azti izango... Gauzak orrela badira (ta ala dira aztikerietan sinisten dutenentzako), norbere buruaren irudi ta erretratorik ateratzen ez luke iñork utzi bear; bestela nere etsaien eskuetan irudia erortzen ba' litz, beti etsaiaren mendean egon bearko nuke, nere erretratoa bere mende dagoalako... Arrazoi berberonek esaten digu, zergatik ez dagoen leize-zuloetan gizonaren antzik eta erretratorik; aztikerietan sinisten bait zuten...

Animalien gorputzean zergatik ikusten diran arma-arrastoak ere, aztikeriak argituko digu: eizera irten aurretik animalia iren irudiari azkona sartu ezkeru, animalia berari ere sartuko zitzaion... Irudia zauritu ta, animalia bizia ere, aztikeriak ematen zion indarra...

Baña, eriotza ekarri lezateken arrastoak, animalia arretan bakarrik ikusten ditugu. Emeetan batere, ez. Gaurko eguneko Alkarte edo Eizerako Soziedadeak ere, kobeetako gizonak egiten zutena egiten dute: arrak ill ta emeak gorde...

* * *

Oraingo Euskalerriko oituretan, ba' da orrela-ko zenbait aztikeri. Gure aurrekoak, leize-zuloetan, aztikerietan sinisten bazuten, guk orduko oiturak ez ditugu oraindik zearo aaztu...

Arazo oneri buruz, aurrerago esanen ditugu

esan bearrekoak; baña zer-edo-zertxo aurreratzea ondo iruditzen zait. Ona gure artean ze siniskera dauden:

Gauza baten eta bere imajiñaren artean, biak alkartzen dituan *indar* bat dago... *Indar* ori sort-arazteko imajiña, irudi, sinbolu, edo kiñuren bat bear da... Aztia da indar ori duan gizakia... Edozein kristau izan leike azti; baña aztikerirako daudenak dakite iñork baño obeto, ze irudi, ze imajiña, ze sinbolu, ze kiñu aukeratu bear diran, *indar* ori sort-arazteko... Aukeratutako kiñu ta irudi auek ematen dizkiete aztieri, berak dituzten aalmenak, egiazko gauzai ta errealtateai buruz...

SANTIMAMIÑE

Orma ta paretetan bakarrik ez daude marrazki ta grabadoak: ezurretan ere topatu oi dira leize-bizitzeetan.

Asturiastik asi, Euskalerritik pasa ta Dordonia lurraldeetaraño marrazki, pintura, grabadu ta edergarri guztiak «Franko-Kantauri-Kulturakoak» dira eta denak tipo batekoak.

Kultura bateko erriak zeuden Asturiastik Dordonia bitartean.

Kultura orren errietatik sortu zan Euskalerria. Kultura orren erdi-parean, Kulturaren ardatz baltz bezela, daukagu Euskalerriko Santimamiñe koba (Santimamiñekin batera jarri genezake Orioko Altxerri leizea ere).

Santimamiñeren berri eman nai genduke orain.

* * *

Santimamiñeko leizea Ereñusarre mendian dago; Ereñusarre, berriz, Gernika ondoko Kortezubi erritxoan. Mendian bi ermita daude: bata goi-goiko gallurrean (San Migelena); bestea, egalean, koba-zuloa baño apur bat beerago (San Mamesena). Ermita onengandik dator kio leizeari Santi-Mamiñe izena.

Antxiñako leize-zuloak dauden mendietan izan oi dira ermitak ere. Ba' dirudi, Euskalerrira Kristautasuna etorri zanean, mendi ta bere leizeetan zeuden jentillen oiturak bataiatu nai izan zituztela, ermita ta oitura berriekin... Dana dala, ermitak eta antxiñako gizonaren koba-zuloak alkarren inguruan dabiltz.

Santimamiñe-kobaren bastartxo batean ba'da gela txikitxo bat. Gela artako illunpean ormaetan marreztuak animalia asko agertzen dira: beor, basantz eta orein, zezen ta basurde, artz eta zaldi, baña danen gain, basa-idi bisonteak (Altamiran beste orrenbeste gertatzen da)...

Euskalerrian sekula bisonterik izan danik, ez du iñork Histori guzian esan... baña Paleolitiko gizon zaharrak, Gernika inguruko zelaietan, bisonteak ugari ikusiko zituan. Ikusi gabe, etzituan berak asmatuko. Zezen eta zaldi, basurde ta axari, oiek bai, oraindik gure mendietan ikusten di-

ra; bisonteren arrastorik, ordea, iñun ez... Ameriketako lurraldeetaraño jua bear, gaur bisonteak ugari ikusteko... Era orretara ote zebiltzan gure mendietan ere...?

* * *

Santimamiñeko zuloan aztiren bat biziko zan, an barruko elizatxo artan, bere konjuroak egiteko, eiztariak irten baño len... Eizarik egingo ba'zuten, aztikeri ta sorginkeriak egin bear aurretik, animalia oien irudien aurrean...

Leize onen atari-aurrean millaka ta millaka lapa ta txirla-azal ikusten da gaurko egunean ere, lurrean botata... Eizea ta mariskoa...! Etziran ain gaizki bizi gure arbasoak...!

* * *

Arkeologi ta Etnologia, antxiñako gizonen berri jakiteko, biderik onenak zirala, esan degu aurrerago.

Ona Arkeologiak zer erakusten digun Santimamiñe-koban:

Etxe-bizitza (leizea bera), sinismena (gela illuneko animalien irudiak), ofizioa (eiztari ta arrantzale), jakiak (ezurrak eta ondakiñak), tresnak (arrizkoak, klase askokoak), mendietako abereak (zezen, zaldi, bisonte...) ta abar...

Oiek dira, Arkeologiak erakusten dizkigun egietatik batzuek. Arkeologiak «ildakoetatik» ate-

ratzen ditu bere berri ta egiak: leize-zuloa, margazki ta pinturak, arri-tresnak, jan-ondakiñak... «Ildako» gauzak dira; bizi ez diranak.

Etnologiak, berriz, biziak maite ditu. Arrizko edo ezurrezko gauzen billa ez, baña erri biziaren billa dijoakigu. Erri biziak zer pentsa ta esaten duan jakin nai du.

Prehistoriako euskaldunak ze bizi-modu zuten erakutsi digu Santimamiñeko Arkeologiak... Goazen orain (Etnologiaren bidetik), erakutsi oieri buruz gaur bizirik daukagun EuskalERRI onek ze burutasun, gogoeta, pentsakizun ta asmoak dituan, ikustera. Ementxe alkar joko dute Arkeologiaren eta Etnologiaren bideak.

Arkeologiak itz egin du.

Mintza dedilla Etnologia orain.

* * *

Santimamiñeko ermitan obiratu oi ziran inguru artako illak...

Santimamiñeko ermitara egiten ziran errotibak eta erromeriak...

Sorginkeritik baztar aiek garbitzeko, eraiki ta jaso omen zan Santimamiñeko ermita...

Ames gaiztoetatik gordetzen omen du San Mamesek. Ona lotaratzean ze otoitz-egiñ oi zaion:

«San Ames,
bart ein dot ames.
Ona ba'da,
bion partez;
txarra ba'da,
beyua artetz...»

Gauza auek eta auen antzekoak dira, erriak sinistu ta esaten dituanak: sorginkeri, aztikeri, konjuro, errotatiba, amesak... Orra ermitaren inguruan zertzuk ikusten ditugun. Kristautasunak ez dizkio mendi oneri, lehendik zeuzkan jentill-kutsuak kendu...

Ereñusarre mendi-tontorrean dagoan ermita, San Migelena da.

Ereñusarre, mendi gaiztoa bear zuan izan Kristautasunerako; bestela balitz, ez ziran bi ermita mendi batean izango: San Migelena gallurrean ta San Mamesena koba-ondoan...

Espiritu gaizto asko zegoen Ereñusarre-mendira, espiritu txar guzien garaille dan San Migel ekarri zuten. Ermita orren arriekin beste ermita bat jaso nai izan zuten beerago, Ereño erriko jendeak; baña, eurak egunez jetxitako arriak, gabaz goian agertzen omen ziran berriro... Ermitatik beera, mendiko aitzetan, iru pauso-arrasto omen daude: San Migelek emandako pausoak dira, beñ deabruaren ondoren zijoala... Deabrua, berriz, mutiko baten atzetik zijoan... ta mutillak San Migelari eskatu laguntza...

Ermita-barruan, tellatuko urak artzen dituan

arrizko sepultura bat dago; ur arrek izugarrizko birtuteak omen ditu, atza edo sarnaren kontra...

Gauza oiek eta beste antzeko asko sinisten zizuten, oraindik orain, Santimamiñe-inguruetakoko kristauak...

Santimamiñe-kobako kutsua dario: antxiñako euskaldunen sinistearen kutsua... Gaur ermitatik bezela, leenago leize-zulotik sortzen zan misteriozko indarra.

* * *

Geiago ere, bai.

Kristo'ren aurreko jentillen idi-narru, urrez betetako bat, omen dago Santimamiñe-zuloan gordeta...

Orrelako esaerak ba'dira inguru aietan geiago ere...

Gañera, Ereñusarre-mendiak ba'du ereñotza edo erramuakin zer ikusirik... Ereñotzaz betea dago mendia, ta ereñotzari buruz zer esanak ez dira palta Euskalerrian.

* * *

Ereñotza edo erramua, misterioz inguratutako zugatza degu.

Nundik dator kio erramuari, erriak dion itzal eta misterio ori? Baserri geienetan izango dute ereñotza etxearen ondoan...

Ekaitz eta tximistaren kontrakoa da erramua:

«Ekaitza sortzen danean, bi erramu orriekin gurutze bat egiñ, eta bular gañean jarri oi da...» «Erramu bedeinkatua sapaian edo tximiñi-atzean gordetzen da; ekaitza sortzen danean, aldi ba-koitzean, pittin bat erre bear da...»

Sorgiñ eta gaitzen kontra:

«Etxeko leioetan erramu-gurutze txikiak ikusten dira, sorgiñen kontrakoak...» «Gaitzetatik libratzeko, gurutze txuriak (erramuzkoak) jartzen dituzte leio ta ateetan...»

Etxeak eta soroak zaintzen ditu erramuak, eta gure Euskalerrian ez da erramuzko gurutzerik paltako soro bazterretan, gaitz guztietatik libratzeko; baña batez ere, sorgiñ, ekaitz eta tximistetatik...

«Ollalokak, txitoak okerrik gabe atera ditzan, arrautz-azpian bi erramu-osto jarri bear dira...» «Medikuak agintzen duten botiketan erramu-ostoak jarri bear dira...» «Ildakoak, erramu-ostoak dituan zapi txuri batekin, eztali bear dira gerriño...»

Orra zenbat esaera ta siniste erramu edo ereñotzari buruz.

Santimamiñeko mendia, ereñotzez josia dago.

* * *

Arkeologi ta Etnologia, biak Ereñusarre men-

dian alkartu dira Euskalerrriaren berri guri emateko.

Alkarte ona egiten dute, egiñ ere.

* * *

Santimamiñe leize-zuloa 1916'garren urterarte illunpean egona degu. Etzekian inork aren berririk, gazte batzuek topatu zuten arte, kobataria lurrez estalia bait-zegoan...

IV

Gure aurrekoen oiturak

Bizi-bidea aurrera eramango bada, egunero jan bear...

Jateko, jana billatu bear...

Au da lehengo ta oraingoan eginbearrik bi-ziena.

Antxiñako euskaldunak nun-da-nola arkitzen zuten beren eguneroko ogia?

EIZTARIAK

Bisonte, zaldi, zezen, basauntz, basurdeak ugari mendietan. Gizona saiaturko zan alzituanak arrapatzen.

Eizea...

Orra euskaldun zaharren eginkizuna...

Zezen, bisonte edo basurderen bat arrapatzen zuten egunean, eztaiak izango ziran koba-zulotan... Txerria iltzea, aste beteko pesta ba'da, zer

ote zan bisonte bat arrapatzea...? Etzan gutxigorako izango.

* * *

Bisonte ta zezena arrapatzea ezta gizon bakar batentzako lana. Orretarako aide ta auzokoen laguntza bear-bearrezkoa zan. Baña lan ortara abiatzen ziranean, aztiari ikustaldi bat egitea zan lehendabiziko lana.

Aztikeriak egiñ ondoren, eizarako toki aproposa ta egokia billatu.

Gaur basurdeetara joaten geranean bezela jokatuko zuten aiek ere: erreka-zuloak aukeratu (edo erbi-paseak); pase-lekuetan gizonak jarri armak eskuetan zituztela: beste talde batek, animaliak uxatu erreka zulotik pasa zitezten...

Ondoren, gizon ta animalien arteko burruka.

Burruka latza.

Baña, gosea bera ere, ez da eder-ederra.

Obeago zuten zezenakin burrukatu, gosearekin baño.

Gure «enzierra», soka-mutur ta zezen-burrukak orduan sortutakoak izango ditugu... Oraingo jolasak, orduko ogibideak... Euskaldunari beti izan zaio atsegingarri lan-gaietan jolastea: karga jasotzen, idi-apostuan, aizkolaritzan, belar-ebagitzen... Ogi-bideak jolas-bide biurtu... Indarrak eta trebetasunak erakutsi ta neurtzea, beti izan zaio gogoko euskaldun jendeari...

Gaurko eskopetaekin, bai zoragarria litzakela orduko bizitza: egun osoa eizarako ta mendi-bazterrak eizez bete-beteak...!

* * *

Gizonak eizean zebiltzan artean, zer egiten zuten emakumeak?

Beren sasoiari, arboletako frutuak bildu: mastusa, garangorri, intxaur, ur, makatz ta beste zenbait zugatz-ale... Jateko belar ta sustraiak billatu... Txorien arrautzak, erlien ezti jaso... Itsas ertzeakoak ba'ziran, aitzetako lapa, txirla, mojojoi, marraskilloak batu...

Baña, ogi-biderik onena eizetik zetorren: bisonte, zezen, basauntzak, aragiakin batera, soñekoetarako larruak eta armatarako ezur ta adarrak eskeintzen ziozkaten gizonari... Basauntzen adarrekin zoragarrizko puñal ta aizto-motak egiten ziran... Zulakaitzak, jostorrazak, arpoi ta amuak... Zer etzan egiten animalia aien ezur ta adarrekin...!

Janakin batera, jantzi eder apañak, eizerako ta lanerako tresna ta instrumentuak nai aña... Ona, zenbat aberastasun abere aietatik sortu!

Arritzekoa al da, animalia aiei koba-zuloetan gurtu ta adoratzeko, eurak arrapatzeko aztikeriak egitea, eta abere-emeak umetarako zaindu ta gordetzea...?

Arrak arrapatu ta emeak ugaldtu.

* * *

Eizean ibilli.

Eizeari probetxurik aundienak atera.

Eizea ugaldtu ta arrapatzeko, aztiarekin artu-emanak euki.

Zugatzak eta lurrak ematen zituzten frutuak bildu.

Txabolak egiñ, ez bait zan danentzako kobarik.

Piztiekin burrukan saiatu.

Auzokoekin artu-emanak zaindu.

Euren arteko gerla ta burrukak ere izango zituzten: indartsuena jaun-da-jabe, orduan ere.

Orra zenbat eginkizun...! Aspertzeko astirik ez.

* * *

Egualdi-giroak etziran beti berdiñak izan, al-daketa aundiekin, baizik. Otzetik berora ta berotik otzera. Elurte aundiko garaietan, elurra maite duten animaliak zeuden Euskalerriko mendietan: mamut, reno, illedun elefantea, leizeetako artz-aundia... Eguraldiak bigundu ziranean, aldegin zuten elurrak ta elurrakin batera esandako pizti oiek. Elurrak eta piztiak Ifarraldera jo zuten ta eurakin batera zenbait eiztarik ere, bai.

Europa Ifarraldeko errietan, euskaldunen an-

tzeko gizasemeak arkitzea, ez da oso arritzekoa izango... Gure odolean elemento kimika «A» eukitzea ere, ez. Ifarraldeko Europatarrena oi da elemento au. Eurak etorri ziran onuntz, ala gu juañ giñan aruntz...?

Giro biguñarekin eldu ziran gurera bisonte, zezen, zaldu, basauntz eta ezagutzen ditugun talde osoa...

Kosta-aldeko errietan ekonomi-arazoak ondo ez dijoazenean, bertako kristauak lapa-billa ibilli oi dira... Antxiñako euskaldunei berdin-berdin gertatzen zitzairen: animaliak palta ezkeru, aitzetara jo bear lapatan... Lapa oien azalak or daude oraindik, erak botatako koba-atarietan...

ARRANTZALEAK

Ugaria izan da beti itsasoko arraia. Baña, arrai oiek arrapatzen etzan erreza orduan. Gañera animaliak probetxu geiago ematen zuten. Orregaitik, arraien ondakiñak eta arrastoak gutxi dira liezeetan. Noiztik beiñ arrai-marrakzi bat ikusten degu... edo arrai ezurren bat...

Eizetik bizi ziran eiztari iaioak, arrantzale eskaxak bide-ziran... Alaz ere, kobaetan ezur edo adarrezko arpoiak eiztira palta izan...

TRESNAGILLEAK

Leizearen atarian, zuloaren sarreran, arrizko arma ta tresna klase asko arkitu oi dituzte jakintsuak: aizkora, atxur, mallu, aizto (kutxillo),

zulakaitz, fletxa, arraskadore ta abar... Tresna oiekin batera «txatarra» ere izan oi da: langilleak utzitako arri-pusketak, arri-lantzean sobratutakoak, erreusak... Orduko lantegiak, eta lantegian, arma ta tresna-egilleak...

Ta arritzekoa da benetan, orduan erabillitako tresnak, gaurko fabriketan irauten dutela oraindiko: torneatzeko ta borobiltzeko arriak oraingo galtzairuzkoen antza daukate (diferentzi bakar bat daukate, ta au da: orduan eskuz egiten zan lana, gaur makinaz egiten dala...) Aizkora, atxurra, mallua, zulakaitza (taladroa) (berbikiña), jostorratza, torno ta fresadoreen burnia jateko piezak... Oiek denak Paleolitiko gizon antxiñakoak asmatu zituan. Orain amabi milla urte gure aurreko euskaldunak erabiltzen zituzten beren koba-zuloetan...

«Ez da ezer berririk eguzki-azpian» esan zuan aspaldi errege Salomon zaharrak. Egia esan ere.

Burnia ta galtzairua asmatzeko zeuden oraindik (geroago asmatuko zituzten); baña, beren lanerako arri bereizia billatu ta arkitu zuten; su-arri edo pedernala... Ta arri ori bereiziki lantzen ikasi zuten, guk gaur ez dakigun bezela.

Arrazoiakin zion Teilhard de Chardin'ek, gure kultura-ontzia oraindik Paleolitiko kaietik ez dala aldendu.

S U A

Antxiñako euskaldun zaharra, suaren jabe

zan. Esaera batek dion bezela, bi egur, gurutze-antzera jarri ta alkarren kontra jiratuta, sua pizten zutela gure aurrekoak. Ta egurra bata bestearekin igurtzika-igurtzika sua pizten dala, egia da.

Lana zan sua piztea, ta beñ piztu ezker, obea zan sua gordetzea, berria lortzea baño. Gaur poxpolo edo txiskero bat naikoa degu milla bidar sua piztu ta itzaltzeko... Orduan etzan orrelakorik. Gure baserrietako sukalde zaharretan ere sua gordetzen (sutautsetan eztaia) ikusi izan oi degu: «Ildakoen animak su ori bear omen dute-ta...» zion amonatxoak. Dana dala, urrengo goizean sutautsa gañetik kentzea naikoa zan, sua bizirik eukitzeko.

Ona Meñaka'n zer esaten zuten sua biltzean:

*«Gure etzian
sua batzia danian,
mille aingeruek satzian.
Gure aingeru-guardia
gorde nire animia.
Oin gorde ta gero presenteu
gloriyeko etzian.
San Migel, Gabriel, Errefel
oira noa lo eten.
Lo eten dotela iltzen ba'naz
zuk iresargi eingo dostesu.
Matrimonio Alejandro enkomendeisu
orain ta eriotzeko orduen. Amen.»*

* * *

Suaren jabetasunak eman zion gizonari bere-
biziko indarra.

Piztiak garaitzeko, etxea gordetzeko otza bu-
rrukatzeko, janariak ontzeko... Zertarako, ez?

Sua sortu ta ezi zuten egun ura izan da, Gi-
zonaren Kondaira edo Historiako egunik aun-
dienetakoa, aundiena ezpada... Zer egingo gen-
duke gaur su gabe? Kendu sua gure artetik, ta
ze egoera litzake gurea...?

Sua ta errota edo kurpilla: orra bi gauza
eder.

Biak, Antziñako «gizarajo» aiek asmatuta-
koak...! Kendu itzazu biak gure zibilizazio onta-
tik... Eta ondoren, zer? Gure Era Atomika-izate
guztia juango litzake pikutara... Arrotasuna ere,
bai... Prehistoriako gizon atzeratu-arroteak utzi
zigun asmakizunekin arropuzten gera gu, azka-
rrok...!

JANTZIAK

Abere ta piztien larruz jazten ziran, geienez
beintzat.

Aria egiten ikasiak zeuden, ala ere... Ba'zituz-
ten, larrua bigundu ta lantzeko tresnak; ebagitze-
koak ere, bai. Botoiak eta botoi-zuloak egiteko
jostorraz ta zulakaitzak...

Larruz jazteko diru asko bear da gaurko egu-
nean; bera bait da onena, apaiñena, beroena,

iraukorrena... Oñetakoentzat ere larrua beti gai-
rik egokiena...

Orra gure mendietako basaidi, zezen, basa-
untzen narruen etorkizuna: gizon ta emakumeen
bizkar-gaño, eta oñak.

Etzan narrua bakarrik soñeko-gai. Animalien
ilhez soroko belarrez ere aria egiten ba'zekiten...
Ardatza ta jostorrazta ezagunak zituzten... Ar-
datza aria egiteko da, ta jostorrazta, ari ori jos-
teko... Ze «modelotako» jantziak ote ziran
aiek...?

ETXE-BIZITZA

Bizitzarako etxerik onenak leize-zuloak ziran.

Batez ere, egoaldera (eguteraan), dauden ko-
bak. Aitz labana izan oi da ate-gaño, goitik iñor
sartu eziñ modukoa...

Barruan, atetik gertu, keia kanpora juañ ze-
diñ, sukaldea. Lurrean egiten zuten sua. Bertan
jan, bertan lan (arri-landu, soñeko...), bertan lo.
Ta bertan ildakoak eortzi ere... Askotan, leizea
zuten etxe ta illobi edo sepultura.

Eguraldietan babes, piztiengandik gorde-leku,
bizitzaren eginbeurrak betetzeko toki egoki...
Orra, leizea! Orra, koba!

Aitzpeetan edo txaboletan, berriz, kobarik
etzutenak bizi bear. Txabolak, ate-sarrera bate-
koak, eta leiorik-gabeak (oraindik erri atzeratuak
orrela egiten dituzte, beintzat); gure artean gaur-

daño iraun duan oitura zahar batek ala agertzen digula, pentsa genezake. Ona oitura ori: etxean baterenbat iltzen danean, leioak irikitzen dira, animak alde egin dezan; baña, erriak ba'dira, beste era batera jokatzten dutenak: leioak iriki bearrean, tellatuan zuloa egiten dute (tellak kenda), anima irten dedin. Leiorik etzala etxean, agertzen digu tellatuko zuloak...

Aralarko, Aitzkorriko, Urbasako artzaiak, txabola ta bordak leiorik gabekoak egiten dituzte gaur ere...

V

Aztikeri ta Sorginkeria

Kobaetako ormaetan animalien irudiak daudela, esana daukagu.

Gizon-irudiak mamarro edo zomorro jantzita daudela, ere bai.

Pintatutako animaliak, arrak diranean, zauri edo arma-arrastoak dituzte gañean beñ baño geiagotan, piztiak il-naiez jarrita ba'leude bezela...

Aztikeria ezaguna zala, alegia, Euskaldunen artean asiera-asieratik: gauzaren ta bere irudien artean ba'dagoala indar bat, artu-eman batzuek... Indar orreri, euskeraz, *adurra* esan oi zaio... Adur orreri ezker, guk gauza menperatzeko, bere irudia edo bere izena menperatzea naikoa izango degu.

Ori sinisten zutenentzat, eizera irten baño len, aztiarengana joatea, aztikerien bitartez animaliak menperatzeko, bidezkoa zan... Aztiak bait-du,

animali ta bere irudien arteko indar edo adurra sortarazteko ahalmen ta eskua...

* * *

Mamo, mozorro edo zomorroz jantzitako gizon itxura duten marrazki ta pinturak, aztien erretratoak edo deabruarenak edo espirituenak dira... Aztiak mamoa jazteko oitura ba'da Afrikako errietan ere... Ta gure arteko Euskalerrian ere ba'da siniste arazo oneri buruz: akelarreak dirala, dantza zaharrak dirala, iñauteri edo *car-navalak* dirala...

Akelarreetan, deabrua aker-itxuran...

Dantzaetan, zaldiak, animalia-narruak, txintxarriak...

Iñauterietan, mamoa ta mozorro ugari... Gogoratzen dituzute orain urte gutxiarte egiten ziran Iñauteriak...? Mamo ta zomorroz jazteko oitura kendu-eziña, odolean darama Euskaldunak...

* * *

Zauri ta arma-arrasto gabeko animalien irudiak ere ugari baño ugariago dira kobaetako paretetan...

Emeak eta arrak...

Noiz edo noiz bururik gabeko irudiak ere ba'daude...

Zer adierazi ta erakutsi nai digute era orretako dibujoak?

Koba oietan, aztikeriarekin batera, ba'zala beste zer edo zer geiago ere.

Ona, zer ori:

Leize zuloetan espiritu ta jainko-txiki asko bizi dirala, uste du gure gaurko Euskalerrian sinismenak... ta jainko-txiki oiek, zezen, zaldi, basauntz, aari, suge ta beste animalien antzekoak dirala...

Histori-aurreko gizonak ere, animaliak gurtzen zituzten koba-elizatxoetan...

Arrigarria da, benetan, gure gaurko zenbait Euskalerriko sinistek eta Histori-aurrekoen kobako pintura ta marrazkiak, bide berdiñetik ibiltzea...!

Zezenak, zaldiak, basauntzak... kobako ormaetan margoituak.

Zezenak, zaldiak, basauntzak... euskal buruetan sartuak, gaurdaño.

Siniste aukerak (Euskaldunen buruetan irauten dutenak), dibujoen garaikoak ote dira...?

Ala dirudi. Baietz, ematen du. Orduko erriaren semeak gera, ta geureari eusten ez digu askok irabaziko guri...

Arkeologi ta Etnologia, biak dihoaz alkarri esku eman-da; gaurko siniste ta oituretatik, orduko arrastoa ta kutsua atera dezakegu...

Euskalerrriak bere izate bereizia galtzen ba'du, orra nundik Yakintzak ere, aurrekoen bizikera jakiteko bide jatorra, galduko duan...

ETNOLOGI-GAIK

Oraintxe, ere, ba'da aztikeri ta sorginkeririk asko gure artean... Persona bat erretzea nai dezu...? Argizari-kandela egizu persona orren irudiko, eta kandela erretzea naikoa dezu, persona berbera erretzeko. Berdin gertatu oi da txanpon-diruakin: diru bat okertzen degunean, txanpon orren irudia okertzen degu ta irudiarekin batera, txanponaren jabea edo guk jabe bezela aukeratzten deguna, ere bai.

* * *

Aurrari ortz berriak atera dedizkion, zer egin oi degu Euskaldunok?

Suari ortz zaharrak eskeiñi, onela esanaz:

«Tori zaharra
t'ekarri berria...»

Edo ala:

«Andra Marie:
otzon ortz zaharra
t'ekatzan berrie...»

Ona beste era bat:

«Mari Tellatuko,
gona-gorri-dune;
otzi agiñ zarra
ekatzu berrie...»

Ta sorgiñak uxatzeko?

Ollarraren kikirriki... Suari gatza bota... San Juan eguneko suakin soro-baztarrak aztindu, onela abestuaz:

«San Juan dala, San Juan;
gure goiko soruan
sorgiñ begiya galdu da;
galdu ba'da, galdu be'di;
sekulan agertu ezpaledi...!»

Edo au:

«San Juan gaur dela;
biar dela Donienez;
Etzi San Juan; biyaramonez
gure soroan lapurrik, ez;
sorgiñik b'ez!
Ba'dagoz, bere,
erre beitez!
San Juan!
Artoak eta gariak
gorde.
Lapurrek eta sorginek
eta beste peste guztiek
erre!»

Umeak giñala, Sanjuan-suakin soroetan-barna ibiltzen giñan kantari:

«Txarrak, kanpora!
Onak, barrura!»

Eta ikullu ta korteetatik espiritu gaizto ta gaxoak aldentzeko, zer egiten degu...?

Ortarako onena, ikulluko atean karda-lorea jartzea da...

«Eguzki-lora» esan oi zaio karda-loreari.

Espiritu txar, gaixotasun edo sorgiñak urrutiratzeko, orra iru gauza:

Ollar-kantua,

Sua (etxekoa edo Sanjuan Egunekoa) ta Eguzki-lorea.

Irurak bat dirala esango nuke nik.

Ona, zergatik:

Ollarraren kantuak argia ba'datorrela dio.

Suak, argia dakar berarekin.

Karda-lorea, Eguzkiaren irudia da.

Argia illunaren kontra: illunpeetan dabiltaza espiritu gaizto ta sorgiñak... Onak, berriz, argiarekin datoz...

Argia, biziarekin bat dator.

Illuna, eriotzarekin...

Illuna, espiritu gaizto guzien antza, itxura ta irudia da. Illuna argiarekin (eguzkia, sua...) garaitu ta menperatzen badet, argiarekin menperatuko ditut, illunaren irudiak diran espiritu gaiztoak ere...

Orra, aztikeriaren mamiñean gaudela...

* * *

Gerriko «berezko» edo zuldarrak sendatzeko egin bear diran gauzak, auek dira: lehenengo aun-

ditsu ori izan duan persona bat topa, onek ollar bati gangarra ebaki, gangarretik darion odolez granoa igurtzi, ondoren gaxoa bide-gurutze batera joan, eta bederatzi «Aitagure» errezatu...

Orra zenbat aztikeri ta... astokeri.

Legen edo basasua (Herpe, erderaz) sendatzeko, 1725'an, Naparroako Erreinoan (Kalahorra-ko dokumentu batek dionez):

«Itz euskaldun auek esan oi dira: «Vasasua, Itsasut, ozanera»; ta gero «Dukaelen semearken semeoro baño Jaunchenago». Ori esan ondoren suarritik iru txinparta atera eriaren gañera».

Egoaldeko Euskalerrria, Naparroako Erreino-koa eta Kalahorrako Eliz-barrutikoa zan. Aztikeri oiek egiten zituztenak, exkumikatuak izan ziran urte artan.

* * *

Suarria aitatu degu: erderazko «pedernal», alegia.

Suarritik sua atera oi da...

Suarrikoak ziran leizeetan arkitzen diran tresna, arma ta istrumentu geienak. Oien artean, aizkora.

Gure aizkorak burni ta galtzairuzkoak ditugu; baño antxiñako Euskaldunaren aizkorak, arrizkoak ziran: suarrizkoak.

Ta aizkora, tximisten kontrakoa da.

Etxe edo txabolen atarian aizkora, auaz gora, jartzen ba'degu, tximistak ez dio kalterik egingo gure etxeari.

Au ere aztikeria izango da...

Ba ote du aizkorak tximistarekin zer-ikusirik?

Tximista, arrizko aizkora dala, erri askoren sinistea da: zerutik botatzen diguten suarrizko aizkora. Lurgañera erortzean, zazpi «eztatu»-bidean sartzen omen da barrura, ta gero, urteero ez tatu bat kanpora irtetzen. Zazpigarren urterako, lur-gañean da.

Arri auek, tximistak jotzen duan lekuetan arkitzen omen dira.

Aiñ zuzen ere, Gernika inguruan (gogora Santimamiñe), tximistari «oñeztarria» esan oi diote. «Oñeztua» ere tximista da; «oñeztarri», oñeztuaren «arri», esango litzake.

Zergatik edo argatik, aizkora (aitzetik aterea) bezelakorik ez dago, gure etxeak tximistatik gordetzeko...

Lanerako balio ez duten, suarrizko aizkora txikiak arkitu oi dira zenbait dolmen edo jentill-arritan... Lanerako gai ezpaziran, zertarako zeuden an...? Tximistetatik dolmenak (ta bere barnean zeudenak) gordetzeko. Beste arrazoirik ez da iñun nabaritzen

Suarria tximistaren irudi da; bere barrutik ateratzen bait ditu suak eta tximistak... Suarrizko aizkorak, berriz, sua atera eta gauzak ebaki... Tximistak ez al ditu gauzak ebagita uzten...?

Dana dala, aizkora gure mende ba'da (aoa gorra begira), tximista ere gure mende egongo da, aizkora tximistaren irudi bait-da... ta irudia menpcratzen duenak (dio Aztikerika) irudiaren gauza berbera ere menperatuko du.

* * *

1963'garren urtean, Donostiko San Telmo museoan, tximistaren kontrako beste zer batzuek ere ba'ziran: magurio edo karrakal izenez ezagutzen diran itsas-ertzeko karakol txikiak Napparroako Agiñaga Ballerako Trinitade mendikoak. No. 3.341. Arrindakoak («fossilak») dira, mendi ortako magurio auek.

Museo orretan zegoan (No. 3.059) azkonar-anka ere, sorgiñen kontrakoa; eta berdin baita triku-larrua ere. (No. 2.410).

Zingiñarri bat ere bazegoan (No. 2.964): «zingiriaren kontrako arria».

Zingiria, umeak azitzen ari diran emakumeen bularreko gaitza da. Zingiñarriak ugariak dira gure artean; ta ari batetik lepotik zintzilika erabilli oi dira. Kristal urdiñezkoak dira; eta ertzak zuriantzeko.

Auen antzeko zingiñarriak dolmenetan billatu oi dira; eta dolmenak ba'dituzte gure artean lau milla urtetik gora...

* * *

Kutunak.

Egur ikatza boltsatxoan, «begizkoaren» kontrako.

Ikatzarekin batera erramua ta zilla, ollo-ziriña ta belarrak jartzen ziran kutunetan.

«Begizkoa», sorgiñak umeeri egiten dieten gaitza da; begiz jo.

Aizkorri ta Aralarko artzaiak, kutun auek ardiari jartzen dizkiete zintzarri baten barruan, ardia begizkotik libratzeko...

Txintzarriak berak ere izan oi du, abereak begizkotik gordetzeko indarra. Arazo oneri buruz, ba'da gure artean esaera ta sinismenik asko...

Noizkoak ote ditugu oitura ta siniskeri auek...?

Auskalo!

Antxiñakoak eta millaka urte betetakoak.

Leize-zuloetan aztikeritan zebiltzen Euskaldun aien semeak gera, ta aien espiritua gugan darماغu, nai badegu ta nai ezpadegu... Bataiatuak gaude; baña, alaz ere, aien aztikerien kutsuak gurekin dirau.

* * *

Paleolitiko-berri geiagorik ezin genezake aterra, gaurkoz, Arkeologiatik; baña, Etnologiatik, bai. Etzaigu, oraindikoz, iturririk agortu. Ta agortzen eztan artean, segi aurrera ura ateratzen.

Zertarako?

Oraingo berritik aurrekoen susmorik ateratzen ote degun. Gure oituretatik gure aurrekoenak agertu: euretatik artuak bait-ditugu. Eurak izan giñuzen erakusle ta maixu...

Goazen, ba, Euskalerrriak sorgiñ ta aztieri buruz, zer sinistu izan duan, ikustera. Orañ ikustera goazen berriak, Histori-aldekoak dira.

Ona Historian zear zertzuk sinistu izan ditugun.

GURE AZTIEN INDARRAK

Aztiak eta sorgiñak.

Zer dute biak elkarren antzeko? Indar bereizi bat («Adur» izenekoa) berekin izatea: aztikeri-indarrak biak dituztela, alegia.

Zertan ez dira berdiñak?

Sorgiñ batzuek azti dira; baña ba'dira, olako indar bereizirik ez dutenak, ere. Akelarreetara juaten ziran guztiak, «sorgiñ» ziran... aparteko indar ta adurrik ezpazuten ere.

Orain egiazko azti ta sorgiñekin ari gera. Akelar-zaleak utzi ditzagun alde batera.

* * *

«Belagille» ta «Sorgain» dira sorgiñen beste izen batzuek.

«Sorgain»ek umen jaiotza du bere ardura-

pean; baita, sorgiñengan sinistea gordetzea ere. Ataun'go etxe bateko jostunen artean eztabaida sortu zan bein sorgiñen izateari buruz. Etzirala ta ba'zirala. Batek ez beste guziak sinisten zuten sorgiñak ba'zirala.

Sinisegabea etxera zijoala, sorgiñ-talde aundi bat agertu zitzaion bidean.

—«Ez geala, baña, ba'gaitun. Maripetraliñ ez beste guziak, emen gaitun».

Ori esatearekin batera, jostunaren burutik illeak ateratzen asi ziran sorgiñak, bakoitzak ille bana... Aizkenerako, jostuna buru-soill ta kaskamotz utzi zuten, ille-muestrarik utzi gabe.

Ortik kontuak atera zenbat ziran...

ANIMALI-ITXURAN

Bela-beltz, txerri, asto, elbi, txindurri ta, batez ere, katu-beltzaren irudia artzeko ahalmena omen dute sorgiñak...

Ba omen zan andra bat baserri batean, gauero-gauero sutondoan, ardatzean ari izaten zana. Katu beltz bat jeisten omen zitzaion tximinitik beera, etxeakoak lotaratzen ziran garaian.

Ikaratu zan etxeakoandrea ta bere senarrari esan zion zer pasatzen zan gauero. Bera, andrea-ren soñekoak jantzita, sutondoan katuaren zai gelditzea asmatu zuan gizonak.

Etorri zan katu beltza, ta esan zion andra-jantzitako gizonari:

—«Gizona ta ardatzean...?»

—«Katu ta izkeetan...?» —Erantzun zion gizonak.

Ta erantzunakin batera sartu zion, saietsetik, burruntzia katuari. Artu ta leiotik kanpora bota zuan katu ori. Bigaramon goizean, auzoko andrea zegoan ilda baratzean...

* * *

Sorgin eta aztien animali biurtze onek, leize-zuloetako aztiak dakarzkigu burura. An ere, aztiak animalien antz-irudietan ikusten ditugu: mamorro ta zomorroz jantzita, abereen antzeko...

Sapoa da azti ta sorgiñekin zer-ikusi asko duan «mamorroa»: azti ta sorgiñak ezkerreko begian omen dute sapoaren señaile ta irudia.

Gañera, akelarreetan, sapo-zai eukitzen omen dituzte, batez ere, sorgin gazteak.

Ori gutxi bait-litzan, sapoaren aragiakin egiten omen dituzte sorgiñak beren pozoi ta bene-noak...

Ta akelarreetako akerra, zer...?

Animali galanta... Baña, akerraren berri aurrerago emanen degu.

BEGIZKOA

Animaliari ta gizakieri egiten die bere gaitza sorgiñak, begiz jotzen duanean.

Ori da begizkoa.

Begizkotik gordetzeko dira kutunak, txintxarriak azkonarren anak eta abar...

Iru aldiz ikututzen ba'zaitu sorgiñak, bere menpeko izan beharko dezu zeure bizi guzian andik aurrera...

Sorgiñaren irrintziari iru aldiz erantzuten diot, bere bizia arrixkuan jartzen du... Ala egiñ omen zuan etxera zijoan neskaxa jostun batek... Baña urrengo egunean, ez omen zegoan an, ille batzuk eta soñeko pusketa batzuek besterik...

Beste iru neskatiñeri, berdin: irugarren irrintziari erantzuteakin batera, sua zetorkiela gañera ikusi omen zuten... Sartu dira laisterka, aurrean zeukaten baserri batean. Atea izterakoan, «zart» entzun zuten; egurrean, bost atzapar-arrasto gelditu ziran...

ETORKIZUNAREN BERRI

Gertu ala, urrutian gertatutakoen berri jakiten omen dute aztiak eta sorgiñak... XVI-XVII'garren gizaldian zenbait emakume, beuren senarren berri jakiteagatik (Terranova, Noruega ta Indietan zebiltzanak, noski), sorgiñ egiten ziran... Ala diote paper zaharrak.

UZTAK MADARIKATZEA

Uztak ondatzeko ahalmenak ere ba omen dituzte sorgiñak... Ezker-eskuakin pozoia zabalduaz eta maldizio bereizia esanaz galtzen omen dituzte ganadu ta abereak, mendiko ezkurra ta

lurreko emaitza ta frutu guztiak... Soroetako uztaren gañean, arria erasotzen ere ba omen dakite...

ITSASOAN EKAITZA

Ala gertatu omen zan, Antonio Okendo'ren itsas-ontziak Bidarteko barran galdu ziranean (1618'garren urteko papereetan dago idatzita); ta Españaiko Erregea Pasaira etorri zaneke ekaitza ere, inguruko sorgiñ guztiak alkar artuta, sort-arazi omen zuten... Bat-batean sortutako ekaitz eta galerna, izugarritzkoak izan omen ziran...!

Sorgiñen indar oneri buruz, ba'da Deba'n esatera bat. Ona emen gutxi gora beera:

Arrantzale bat bizi omen zan, bere andra ta alabarekin: biak sorgiñak. Gau artan, senarren ontzia artu, eta or nun dijoazen, aideetan zear, akelarrera; eta olio-zugaitz gañean gelditu (Olio-arbolak, Deba'tik gertuenak Erriojan daude).

Barkuko «txo» gaztea itsasontzian lo zegoan: sorgiñekin batera egin zuan gau artako juan-etorria. Ama-alabaen arteko jardunak entzun ere, bai: goiz-sentian amaitzen ziran ama-sorgiñaren ahalmen ta indarrak; amaitu baño leen, ordea, alakoren batean senarra itsasoan ondoratu nai izan zuan ontzi ta guzti.

Deba'ko barra beti izan da entzute gaiztokoa.

Arrixku aundikoa.

Ta itsasoan, olatuak irunaka etorri oi dira...

Sorgiñaren asmakizunak auek ziran: bere se-narra, goiz artan, barrara elduko zanean, iru ika-ragarritzko olatu sortuko zituan berak; esnezkoa lehenengo olatua; negar-malko samiñezkoa, biga-rreta, eta odolezkoa, irugarrena.

Salbatzeko biderik bat bakarrik izango zuten. Auxe: irugarren olatuari arpoia sartzea.

Entzundako guztiak esan zizkion mutillak be-re patroiari; baña onek etzion bat ere sinistu. Etzuan ark sorgiñ-bildurrik; eta erabakita zegoan bezela, irtengo zuten itsasora. Patroiak etzekian sorgiñen izenik: ez bait zion mutillak izenik eman...

Irten dute itsasoruntz.

Barrara gerturatu ziranean, orra nun, bat-ba-tean, sortzen dan esnezko olatu aundi zuria... Pasa zuten nolabait.

Ez, alperrik...! Uste gabean, gañean zuten bi-garren olatua: negar-malko samiñezkoa... Pasa ura ere.

Irugarrena...! Gorri-illuna. Odola. Ikusi zua-nerako, eldu zion patroiak arpoiari; jaso zuan besoa ta «zast!» sartu zion arpoi ori bizkarretik olatuari...

Arpoiak ikututzearekin batera ura erdibitu zan, ta patxada guztian, pasa zan kale-erditik on-tzia aurrera... itsasotik intziri miñ, luze, negar-garriak sortzen ziran artean... Miña ta gorrotoa,

biak zeramazkian alkarrekin intziri arrek, bere barnean.

Arrantzu ona egiñ ondoren, erriratu ziranean, ez du patroiak bere emazterik ikusten onda-rean... Nola ikusiko du emaztea ondarrean, oian badago gaxo, zauri aundi sakon bat bizkarrean duelarik...!

Arpoiak egindako zauria. Patroiaren emaztea bait zan irugarren olatu ura... Gorrotoak erio-tzara eramandako emazte gajoa...!

AKELARREA

Gure aurreko guraso prehistoriakoak, leize-zu-loetan egiten zituzten beren aztikeri ta sorginke-riak. Historia ezkeroko Euskaldunak, sorginke-rian egiteko akelarreetara joan oi ziran.

Akelarre famatuenak, otsik aundienetakoak, Zugarramurdiko leizeetako akelarreak ziran.

Akelarreak egiteko beste leku asko ere ba'zeu-den Euskalerrian: Larrun-mendia, bat; Ataungo Mandobitako zubi-azpia, bi Orozkoko Garaigorta-ko aitza, iru; Dimako Petralanda zelaia, lau... ta abar. Ta erri guzietako bide-gurutzetan.

* * *

Akelarre, akerren larrea edo landa da.

Landa aietan biltzen ziran sorgiñak, akerra gurtzera. Landa-erdian jarrita egon oi zan akerra.

Aundia ta beltza.

Akerrari atzekaldean musu-ematen zioten sorgiñak...

Gero, dantza zoroak egiten...

Arpegia mamu edo zomorroz jantzita...

Ostiral-gaueetan...

Orra, akelarreetan agertu, animalia (akerra); eta mamu, mamorro edo zomorroak ere, bai; eta dantzak... Koba-zuloetan ere ba'giñuzen, Prehistorialdean, animaliak eta zomorroak... Dantza egiten zuten ala ez, zihur ez dakigu; baña gure akelarrei edo Afrikako aztai begiratu ezker, zer ikusten degu? Aztikeriak egiteko, aztia mozorroz jazen dala (animalien itxuran, leizeetako pinturatan bezela) ta mozorro jantzita dantzan egiten dutela...

Esaeratan, askotan, akerrari «deabrua» esan oi zaio; ta akelarreetako jardunari, «Meza Beltza»...

Akerra (ta deabrua), mozorroz jantziak, dantzak eta izkanbilla (edo Meza Beltza)... orra akelarreak zer diran. «Akelarreko baratzen, sorgiñak ezpata-dantzan»: esaera zaharra.

SORGIÑ NOLA EGITEN ZAN

Norbera sorgiñ biurtzeko ta sorgiñen ahalmenak norberegantzeko, bide asko daude.

Sorgiñari eskua ematea da bat.

Orregatik etzaio iñolaz ere, sorgiñari eskurik

eman behar; ez ta berberak eskatuta ere... Ill-zorian dagoan sorgiña, larri egon oi da, ill-eziñik, arik-eta beste bateri eskua emanda, bere indarrak ari pasatu arte. Eskuarekin batera, jostorratzez betetako kutuna eman oi dute; kutun ori bide dala izaten omen dituzte beren indar ta ahalmen bereziak.

Au da sorgiñ-izateko bigarren bidea:

Bi ollo beltz artu ta bide-kurutz batera joan. Ori egiten duanari, izaki txiki batzuek etorriko zaizkio, mozorro-antzean edo gizaseme-itxuran; auk ematen omen diote ahal ta indarra sorgiñari. Ona emen zenbat izenekin ezagunak diran mozorro edo gizaseme txiki auk: fameriyelak, mamarroak, bestemutillak, galtzagorriak, bearreztanak, mozorroak, aidetakoak...

Familiarrak ere esan oi diote izenez.

Familiar auk jostorratz-ontzi batean eraman oi dituzte sorgiñak berekin. Jostorratz-ontzia iri-kita eukitzearekin bakarrik, biltzen omen dira, Sollube'ko mendian, urtearen gau jakin batean. Edo bestela, San Juan gaberdian. Baionako den-da batean saltzen dituztela ere, esan oi da: ontzi bakoitzean lau gizontxo edo deabrutxo, beren galtza gorriekin.

Kortezubin (Santimamiñe) esaten zuten, mozorro-irudia zutela familiarrak.

Sekulako mesedeak egiten dizkate beren jabeai.

Beiñ, Zarautzen, idi-apostua zan. Galtzen zi-

joanak, bere beien uztarran, jostorraz-ontzia jarri zuanean, errex irabazi omen zuan.

Sorgiñ izateko beste bide bat, elizari gabez iru buelta ematea omen da...

Errezagoa omen da sorgiñ izaten astea, izateari uztea baño...

SORGINTZARAKO EGUNAK

Batzuen usterako, egun guztiak dira sorgin-ketarako onak eta egokiak... Beste askoren iritzira, berriz, ostiral-gaba da egun eta une egokiena. Ostiraletik zapatuta bitarteko gaua, ollarrak jo artekoan.

Jairik etzaie gogoko.

Igande edo domeka-egunik aitatzerik ere ez dute nai.

* * *

Ostiral-arratsalde batean, Txomin Bidarte bere andregaia ikustera juan zanean, oñetako-pare polita egin nai izan zion Kataliñ'eri. Kataliñ sorgiña ote zan susmoa jaio zan errian; baña, Txomiñi susmo oiegaitik ajolik, ez. Ziranak zirala, beintzat, Kataliñekin ezkonduko zan... Bai orixe!

Oñetakoak oraindik amaitzeko zeuzkala gaua etorri da, eta etxera biurtzeko berandutxo... Bertan geldi zedilla eskatu zioten Kataliñen gurasoak: kutxa batean egingo zuala lo...

Gelditu zan.

Gau-erdian zer edo zerk esnatu zuan... Kataliñ zetorren anka-puntatan; gerturatu zan sutondora, lahatzapetik arri bat jaso, bertatik kutxatilla atera, kutxatillako olioarekin gorputza igurtzi ta onela esan zuan:

«Laño-gañetik eta odei-azpitik.»

Ori esanakin batera, tximiñitik gora, egaka joan zan.

—«Oraintxen dakit Kataliñen berri», zion Bidartek. Ta Kataliñeri ikusitako guziak egin zituan berak ere. Bere burua aidean ikusi zuan, mendien gañetik, zelai zabal bateraño... An ikusi zitun ikustekoak...! Jende apaiñ askoren artean agertzen ziran bere zenbait lagun ere Kataliñekin batera. Soñeko gorriakin zebillen Kataliñ.

Izkututik (ez bait zuan ausardirik aurrera agertzeko) gauza askoren balioa ikasi zuan: altzaren azala zertarako dan; zatorraren odolarekin zenbat gaxo ta zauri sendatzen diran; zerralluzotik gizona nola pasa leikean; egun bedeinkatuen birtuteak zenbat diran... ta abar.

Aker beltza, erdi-erdian zegon.

Ta etorri zan akerrari agur egiteko ordua. Banan-banan, bata bestearen ondoren, akerrari atzekoaldean muñ ematera, eldu ziran.

Etziola berak muñ emango, zion Bidartek berakasa.

Txanda etorri zitzaionean, zorroan zekarren

zapatari-etzen zorrotza sartu zion akerrari atze-koaldetik... Akerraren orruak...! Argiak itzaldu ziran ta sorgiñak izkutatu...

Bidarte bere onera zanean, Larrantean etzanda zegoan...

Etzaio, oraindio, sustorik pasa.

Kataliñeri laga ta beste andregaien billa asizan bertatik. Sorgiñik etzuan nai.

* * *

Oraintxu arteko euskaldunentzat sorgiñak eta aztiak egitako personak ziran. Gure artean bizi ziranak. Gure zenbait ama ta amandre edo amamak, sorgiñak ba'dirala sinisten dute... Ta ezpada, Eibarrerri eskerrak eztira: Eibarren egiten diran su-armaeri esker...

Beren probetxurako, zenbait sorgiñ gibelauendi ugartu zan, siniste onen itzalean...

Oietako gibelauendi baten historia kontatu oi dute Nafar-beerean:

Ba omen Txitazaiña zeritzon azti bat.

Arratoiak ugartuta, uzta guzia arrixkuan zegolako, baserritar-taldea joan omen zitzaion, erre-medioaren eske.

Billa zebiltzen erremedioa bereala eman omen zien; baña, aurretik, bere lanak egiñ ahal izateko, antxume bat bear zuen eta labain edo aizto fiña, galtzairuzkoa; ondoren, berriz, goraizak, antxumearen narrua ede estu-luzeetan ebagitzeko:

—«Nik, pago-egurrarekin, erreko det antxumea. Bitartean zuek, narru-edeak luzatuko dituzute zuen soroetan ertzetik-ertzera. Etxe-inguruetan ere, bai. Gero, lau kandela aundi erreko ditut; erretzen diran artean, nere liburu aunditik, otoitzak egingo ditut, zuen etxeetara begira. Lan dana, onenbeste diru kostako zaitue...»

Aztiak esan bezela egin zituzten egiteko guziak, baña... arratoiak, leen aña...!

Baserritarrok, berriro aztiaren billa.

Sorgiñak baserritarrei:

—«Ze berri...?»

—«Berri txarrak: or dabilta arratoiak lehen baño bizkorrago ta ugariago. Ezta bat ere palta. Zure ahalmen ta indarrak, nun dira...?»

Bere burua larrialdian ikusita, («zenbat ate, ainbeste maratill»), galdetzen die:

—«Arratoi oiek, ze kolorekoak dira...?»

—«Gorrixkak...»

—«Ene...! Nik arratoi beltzekin det birtute...»

Baña, maratill arrek etzion aterik itxi.

Artu zituan ederrak...

VI

«Mari», sorgiñ guzien erregiña

«Sorgiñ» itzak zer esan nai duan esan bade-
gu ere, orain zer edo zertxo bat geiago adieraz-
tea, beharrezkoa deritzot.

Leize-zulo-barruko illunpeetan bizi zan espiri-
tua omen zan «Sorgiña», euskaldunen asieran.
Gau-erditik asi ta ollarrak jo arte irauten omen
zion indarrak espiritu arreri. Gauaren jabetasu-
na bere esku zeukan.

«Gauekoak, gauekoentzat», esan oi zuten gu-
re aurretikoak.

Baña, espiritu oiek beti egon dira «Mari»-ren
menpean: «Mari» egon da, sekula-sekulotan, sor-
giñ guztien gañetik eta auek egin dituzten lanak,
«Mari»-ren aginpidean egin dituzte... «Ezezkoari
emanak» kobratzea, batez ere.

Zer diran «Ezezkoak»?

Norberen aberastasunak izkutatzea, gezurra-
ren bidetik, da «Ezezkoa»: zuk, ogei euki ta amar

dituzula esaten badezu, gezurretan gordetako amar oiek «ezezkoari emanak» izango dituzu. «Sorgiña» etorriko zaitzu, «Mari»-ren aginduz, zuri amar oiek kentzera...

Zubiak eta elizak egitea, izan oi da «sorgiñ» auen eginbehar bereizia...

«Sorgiñ»-en eskuetatik goazen, orain «Mari»-ren erreinuari ikustalditxo bat egitera.

ANBOTOKO SORGIÑA

Ezaguna da Euskalerra guzian.

Bere izena? «Mari».

MARI, Anbotoko Sorgiña, sorgiñ danen buru bezela agertzen zaigu histori zaharretan.

Sorgiñ guzien erregiña, beste sorgiñ askoren antzera, leize-zulo batean bizi da...

Leize-zuloan bizi ta animalien itxuran azaldu: emakumea izan arren, tarteka, auntzen anak eta saia-renak artzen ditu; beste batzuetan, berri, zaldi, zezen, ari, putre, suge edo beste piztien irudi osoak. Baña, gai au gerora zeatzago aztertuko degu.

* * *

Leize-zuloak, sorgiñak eta animaliak.

Ona iru gauza begien aurrean eukitzekoak... Prehistoriko-euskaldunak ere, leize-zuloak, animalien irudiak eta sorgiñ-aztiak ezagutzen zituz-

ten... Aztikeriak, eizerako ta eizera gabe, egiten zituztela badakigu...

Ta, ez al gera gu aien seme...? Aien aztarna, atz, zantzu eta kutsua ez degu oraindik zearo galdu...

Gauza arrigarria, benetan, auxe da: Arkeologiak esana, uraxe berbera agertzen digula Etnologiak ere... Gure arbaso zaharrak koba-zuloetan sinisten zutena, gaurko eguneko euskaldunok ere, ori berbera sinisten degula dirudi... Koba-zuloetako marrazki ta pinturetatik jakitsuak ateratzen dituzten zenbait erakutsi, ta MARI'ri buruz gaurko euskaldunen pentsakerak agertzen dituanak, alkarren antzekoak dira...

Gure zenbait siniste, koba-zuloetan sortu zira-la esatea, alrebeskeri aundiren bat al da...?

MARI-ren berri jakiteak, orduko gauzaen berri jakiteko lagunduko digu. Bere argiarekin, Prehistoriaren illuna argitu lezaiguke, ta Arkeologiak erakutsitakoa, sendotu ta konfirmatu.

* * *

MARI ez da, Anboton bakarrik bizi.

Beste etxe-bizitza asko ditu, Anboto ezezik...

Ez dago Euskalerrian baztarrik, MARI-ren berri ez dakienik.

Lur-azpiko tokietan bizi da: lurraren barneko eremuetan. Andik kanpora irtetzeko pasadi-

zoak leize-zuloak ditu; orregaitik agertzen da leize-zuloetan.

MARI-ren leizeak auek dira:

Gorbea, Oiz, Mugarra, Aizkorri, Aralar, Ayako Arria, eta Ory-mendi. Balzola, Supelaur, Atxali, Sarrimendi, Mariyen Kobia (Anboton), Gabaro, Kanterazar, Otoyoko ta Damazuloko kobeak, Bizkayan; Kapildui, Okina ta Zaldiarangoak, Araban; Garagarza, Kutzeberri, Atxorrotz, Gaiztozulo, Aketegui, Sugaarzulo, Aspildi, Ubei, Murumendi, Marizulo, Txindoki, Azarizulo, Olanoi, Otsabio, Laparko Leizazulo, ta Obantzun Gipuzkoakoak; Odebe, Udabe, Beraingo-leze, Mugiro, Ake-larre (Zugarramurdi) ta Auzakoak, Naparroan; Arrobeltz, Lezia, Faardiko-Arri, Marixilo ta Mondarrain'ekoak, Lapurdin; Zelharburukoa, Baxenabarrean; Lexarrigibele, Lezenobi, Beli, Azalegi ta Otxilarrekoak, Xuberoan.

Bizi-lekua, lur-azpian.

Lur-azpitik irtetzeko ateak, koba-zuloak.

Ta ez koba-zulo gutxi, ere...

* * *

MARI-k ez du izen bakar bat bakarrik; ba'ditu beste asko ere: Mari, Maya, Gaiztoa, Sugaarra, Yona-gorri, Arpeko Saindua, Basa anderea, Mariarroka, Mariurraka ta Mariburrika.

Guk, ordea, MARI izenarekin aitatu degu beti lan onetan.

* * *

NOLAKOA DEGU MARI

Era askotakoa agertzen zaigu MARI.

Garo aundi baten antzera ikusi zuten beñ Oñatin, sua dariola.

Sutan dijoan arbolaren itxuran... aurre partetik emakumea zala.

Suzko itaia ta suzko globoaren irudian, ere bai: mendi batetik bestera pasatzen dala... Kobazuloan sartzean, ikaragarritzko zalapartak ateratu oi ditu.

Noiz-edo-noiz MARI-k illargia dirudi.

Edo bestela, illargia lagun duela pasa oi da.

Sutan igari dijoan emakumearen antzera ikusi oi zuten Anbototik Aloñara zijoala...

* * *

Ara emen sua ta MARI alkarrekin.

Etxeko suari eskeintzen zaizkio umeen ortzak, eta su orrek Andre Mari du izenez:

*«Andra Mari, otzon zarra
t'ekatzan berrie...»*

Gatza eskeñi oi zaio suari...

Ta sutan erretzen dira erramuak, ekaitza danean...

Sanjuan-suak, gaitzak, sorgiñak eta espiritu gaiztoak aizatzen ditu gure etxe eta soroetatik...

* * *

Andre oso aberatsa da.

Soñeko politak, urrezko orrazea eskuetan, urrezko ari-matazak, urrezko katillu, baso ta krisalluak... Ikatza ere ba'du koba zulotik ateratzen danean, urre-gorri biurtzen dana...

Garoa, arbola, itaia, illargia, sua, emakumea... Ona zenbat gauza dan gure MARI.

Baña, ez da ori bakarrik; ba'da geiagorik ere.

Zaldi, zezen, aari, aker, bigai, suge, putre, belazahar... oiek denak MARI dira. Baña animalien itxuran agertu arren, esaera zaharrak dienez, MARI beti emakumea da.

Leize-barruan dagoanean, animali bezela azaltzen da MARI; ta leize-zulotik irtetzen duanean, artzen ditu beste arbol, itai ta suaren itxurak...

Ibilli ta ibilli, ta beti toki batera jotzen degu: leize-zulo ta sorgiñ animali antzekoetara, alegia...

Lur-azpiko MARI ta bere menpeko dituan sorgiñak, guziak animali-antza dute... gizon prehistorikoaren sinismenaren arauera...

Zaldiak, basaidiak, basauntzak... koba-zuloetako pinturetan... ta zaldiak, zezenak, ariak akerak... gure gaurko esaeratan... ta auek ere, koba-zuloetan bizi diranak... Euskaldun prehistorikoak egindako pinturak, ona emen, berriz ere, gure gaurko eguneko euskaldunen buruetan bizirik, oraindik... Ez al da au arritzeko...?

MARI'REN SENDIA

MARI animalien irudira agertzen bazaigu ere, bera emakumea da: zazpi-alaba zituan emakume ezkondua. Baña bai bera ta bere seme-alabak, bataiatu gabe zeuden: etziran kristau, jentillak baizik. Kristautasun-aurreko esaera eta siniskeriak dirala esateko bidea ematen digutela dirudi.

Beñ, bere senarrak gurdi batean lotu ta elizara ekarri zuan MARI, bataiatzera, bere seme-alabaekin batera. Baña elizara ia eldu ziranean, sutan jarri zan MARI, ta, lokarriak erreta, aidean jua zan bere Murumendiko koba-zulora, onela ziardula:

*«Matias Muruko,
zazpi seme
mundurako;
bat ere ez
zerurako.»*

Beste era batera ere esan oi dute:

*«Ne umek
zerurako;
ta ni orain
Muruako.»*

Kristautasunari etzion eder-etsi MARI-k.

Nahiago zuen bere leize-zuloko jentil-bizitza.

* * *

Zazpi aizpa ditu MARI'k. Ainbeste zuloetan agertzen da ze...! Zuloetako MARI oiek aizpak

dirala, asmatu du erriak. (Gipuzkoan, Amabirji-ñagatik ere, zazpi aizpa dirala esan oi da eta al-karri bisitak egiten dizkiote mendietako ermita-txoetan...)

Mari'ren senarra.

Iru izen ditu: Maju, Sugaar ta Sugoi.

Ostiraletan, arratsaldeko ordubietan, juaten omen zaio emazteari, eta, orduan, izugarritzko ekaitz eta erasoak izaten omen dira. Ostiraletako MARI'ren bisitatzallea, deabrua dala uste dute Zumarragan...

Atarrabi ta Mikelats.

Auek dira MARI'ren bi seme: bata ona ta bestea, gaiztoa.

Murumendiko MARI'ren seme bat, apaiz egin omen zan. Lazkanoko Senpere ballaratik zijoala, bere anai bat agertu zitzaion esanaz:

—«Gariak ederrak daude; baña ba'ditut nik, gari oiek joko dituzten zaldi galantak...»

—«Bai, nik ere, zaldi oiek geldi-araziko dituzten freno indartsuak...»

Etixeratu zanean, onela esan zion apaizak bere neskameari:

—«Murumendi-gaiñetik odeiren bat sortzen ikusten ba'dezu, abixatu eidazu bereala.»

Alaxe gertatu zan.

Murumendi-aldetik sortu zan odeia. Apaizak

konjurua egin zion; baña, alperrik: kaskabarra ta arria etzan gelditzen. Orduan bere oñetakoa kendu ta baratzara bota zuan onela ziola:

—«Sartu ditezela or!»

Arri guzia apaizaren oñetakoan sartu zan, eta erriari etzion kalterik egiñ...

* * *

Bi anai auen izakera, kontuan artzekoa da: bata ona, bestea gaiztoa. Bat Onaren iturri; bestea, Txarrarena; biak (Ona ta Txarra) iturburu batetik baletoz bezela: MARI litzake bien iturburu... Bera ere, aldika ona eta aldika gaiztoa bait da.

Erriak esan oi du Anbotoko Sorgiña dala gaiztoa ta Murumendiko Damea, berriz, ona... Arazo oneri buruz, gerora esanen degu zerbait geiago.

MARI'REN ETXE-BIZITZA

Koba ta leize-zuloen barrenak —esan degu— dira MARI'ren bizi-lekuak.

Etxe-atarian jarrita, urre-gorritzko orrazearekin orrazten ditu MARI'k bere illeak... Ardatzean ere egiten du, bere urrezko ari-mataza, aari baten adarretan arilkatzen duala.

Asteaizkenetan egiten du lixubea.

Ostiraletan, berriz, ogia labean erre. Ogia erre-

tzen dagoanean, koba-zulotik ke-lañoa ateratzen da... Euria egingo duen señailea da ori...

* * *

Bisitariak koban etzaizkio gogoko MARI'ri; areago, lapurrak.

Beñ batean, Aketegiko leize bildurgarriaren aurretik zijoala, leize-barrura begiratu zuan artzai batek. Askotan entzunda zeukan, an barne artan bizi zan emakumeak etzuala bere bururik agertzen, atarian illeak orrazten ari ezpazan edo zulotik su-garretan irtetzen ezpazan... Oz-garbi zegoan zerua, bañan bat-batean, illundu egin zuan, ta erauntsi ikaragarri batek astindu zituan ango baztarrak... Orrela agertu omen zuan MARI'k bere asarrea, leize-barrura artzaiak begiratu zuelako.

Beste batean, Gaiztozuloko leizera arriak bota zituzten eiztari batzuek. Arriak ondora orduko, sortu zan aize-burrundarak jo ta bota zituan eiztariak lurrera...

Anbotoko kobatik urrezko kaikua arrapatu zuan gazteak, bereak eta bost ikusi zituan... Gaizkiñak eraman zuan gau artan bertan...

* * *

MARI'ren etxe-bizitza sakratua da.

Baldiñ, konsultaren bat egiteko, etxe-barrura

sartu behar badezu, ondo kontuan artu, zer egiñ behar dezun une artan:

Lenengo ta bat, «ika» itz egiñ MARI'ri.

Bigarren: zutik egon eta ez eseri ezerगतikan ere.

Irugarren: sartu zeran bezela irten: atzekoalderik MARI'ri eman gabe: beti aurrean dezula: bai sartzean ta bai irtetzean ere...

Egun artan, MARI'k aaria arrapatu zion artzai bati. MARI'ren leizera juan baño len, artzaiak pralle bati eskatu zion konseju. Pralleak esan zion, aurreraka sartu ta ateratzeko kobatik, MARI'ri atzerik eman gabe... Juan zan artzai leizera, ta bertan ikusi zuan bere aaria. Artu aari ori adarretatik eta kanpora atera zuan, atzeraka, atzeraka...

—«Eskerrak etorri bezela irten dezunari; bestela, emen gelditu beharko zenduan...!» —esan zion MARI'k.

MARI GAIZKIÑA

Artzaiak koba-zulora begiratu zuelako, ekaitza...

Eiztariak arria bota zutelako kobara, aize-burrundara...

Kaikua lapurtu zion mutillari, okerrago oraindik...

Berak arrapatu zion aaria artzaiari...

Beste bateri, arkumea...

Urliari, bi arkume egunero...

Baña, ekaitza, kaskabitoa ta arria dira berak geien maite dituan zigorrak... Berak, edo bere seme dan Mikelatsek, edo bere menpeko diran Odei eta Eate'k bialtzen dituzte kastigu oiek lurrera...

Lau-zaldiko burdian pasatzen ikusi oi dute zeru-goietik, bere ondoren arri-erauntsi, euri-jasa ta berealdiko ekaitzak sortaraziaz...

Anbotoko Damia, Santa Barbara egunean, leize-zulo barnean badago, udara paketsu ta ugaria izanen da; baña, egun artan, etxetik kanpora badabill, erreko ditu uzta guziak...

MARI ONGIÑA

Onik asko ere egiten du MARI'k.

Beregan sinistea dutenai, ondotxo laguntzen die.

Ona zer gertatu zitzaien batzuren-batzueri:

—«Ibillaldi luzea eginda zetozen. Atxorrotx'tik igarotzean, aize-bolara biguñ batek artu ta beste alderarte eraman zituan, nekerik gabe. Ura, Anbotoko Damea zan.»

Dei-egiten ba'diozu, etorriko zaizu laguntzera...

MARI'k neskatoa arrapatu bazuan ere, andereño eder baten antzera azi zuan... Gero, koba-

tik alde-egitekoan, ikatza eman zion eskura. Neska kanpora zanean, ikatza urre biurtu zitzaion...

«Egarriz zegoako, ur-billa zebillen artzaia Burumendin. Leize-ondoan andre gazte ederra ikusi zuan, apainduriz jantzita.

—«Zeren billa zabiltz?» —dio andreak.

—«Ur-billa» —erantzun zion artzaiak.

—«Ur-billa? Sagardo billa esan naiko zenuan».

Besterik gabe, pitxar bat sagardo ekarri zion.

—«Auxe bai, sagardo bikaña. Nungo sagarrekin egin dezu?» —dio artzaiak.

—«Ikastegietako Montes etxeko jaunak «ezari» emandako sagarrakin» —erantzun andreak.

«Ezari emana, ezak eraman», dio esaera zaharrak.

MARI'REN AGINDUAK

Gezuraren kontrakoa da.

Lapurretarik, ez.

Arrokeririk, ez.

Emandako itza bete behar da.

Gizakumeari begirunea zor zaio.

Gizartean alkarri lagundu...

Orra MARI'ren zenbait agindu eder. Kontzientzi-barnean agintzeko ausardia ba'du MARI'k, Jainkoaren antzera...

Ta, pekatarien zigorra...?

Gezur, edo lapurkeri, edo arrokeriaren gaia artzen du MARI'k, pekatarien zigorrerako gai. Ukatu edo lapurtu edo geitu duana, kendu, alegia. «Ezari emana, ezak eramana». Zuk, dituzularik, eztituzula esaten badezu, zuk ukatutako oiek, MARI'k kendu egingo dizkitzu. Zuk, batere eztezularik, ba'dezula esaten badezu, baizko oiek kendu egingo dizkitzu, izango dituzunean... Orregatik esan oi da, MARI bizi dala «ezagaz» eta «baiaz»: ezetik eta baitik...

Ia nun zebiltzan bere menpekoak galdetu zioten MARI'ri:

—«Elgoibarren, ezaren billa».

Eun ardi zituan artzaiak, berrogeta-amar zituala esanzuelako, amar ardi kendu zizkion, «ezagatik». Eun-da-amar zituala esan balu, beste amar kenduko ziozkan, «baiezkoagatik»; arrokeriz, etzitianak, ba'zituala esan zualako...

«Ezai emana» ez da, bakarrik gezurragatik esaten; baita esaten da, auzoarteko behar dan laguntzarik ematen ez dalako ere.

* * *

Zubillagako errementari edo olagizona, Anbotera joan zan, bere olak zergatik gelditu ziran jakiteko.

—«Emengo nausia nun da?» —galdetu zuan koban sartzearekin batera.

—«Nausia Zubillagan dabill «ezartuak» banatzen» erantzun zion Anbotoko Damiak.

«Ezartuak» eta «ezari emanak» alkarren arteko zer-ikusia dute.

«Ezartuak» arri-jasa da: kastigua, «ezari eman zaiolako».

Kortezubin (Santimamiñe) esaten zuten, Anbotoko Damari urteero eskeintzat egiñ ezkerero, ez omen da arririk eta ekaitz txarrik izaten...

* * *

Ondo dakigu esaera auek ez dirala beiñ ere gertatu.

Ala ere, Euskaldun askok sinisten dituzten gauzak dira auek: eta sinisten zutela, egia da... Ta gertatuak izan ez arren, egia da gauza oiek beuren buru-gogoetan dirala... Ta buruan dituzten siniste oiek eragiten diete Euskaldun askori, ta erlijio edo orren antzeko gaietan eragiñ ere...

MARI'REN ERANTZUNAK

Zubillagako olagizona bezela, joan zan Iretakoa ere MARI'ren billa, bere olaren okerraren sustraia jakin nairik.

MARI'k galdera guzientzako du erantzuna:

—«Txingudiaren azpiko losa jasota, ikusiko dezu sapo aundi bat; kendu ezazu ta ibilliko da

zure ola» —erantzun zion MARI'k Iretako olagizonari.

* * *

MARI bere koba-zuloan erantzunak ematen. Prehistoriko aztiak dakarzkite burura: aiek ere beste orrenbeste egingo zuten Santimamiñen...

MARI'RI KONJUROAK

Arri-jasatik eta beste gaitzetik erriak gordezko, oitura zan, zenbait koba-zuloen aurrean, Meza eman eta konjuroak egitea. Meza auek egitan ematen ziran.

Txindokiko MARI'k neskatoa arrapatu zuanean (au esaera da, gertatua ezpada ere), aren billa jua ziranak, apaizarekin batera joan ziran, an Meza emateko asmoakin. Atrilla palta mezararako ta gelditu ziran Meza emateke.

Maiatzeko Gurutze Santu eguna izan oi da, toki askotan, MARI'ri konjuruak egiteko eguna. Konjuroak MARI leize barruan arrapatzen badu, ez da izanen arririk uda guzian...

Lazkau'ko baserritarrak, urteero jua oi ziran, Maiatzeko Gurutze Santu egunean, Aizkorriko ermitan Meza ematera. 1936'garren urtean etziran joan, ta urte artan, Abenduaren 29'an, Etxorroi baserria erre zan Olaberrin, Lazkauko partetik, tximistak jota... 1959'garren urtean, oraindik ere uste zuten zenbaitzuk etxea erre-

tzea, urte artan, Aizkorri Meza eman etzutelako gertatu zala.

* * *

Leizeetako konjuro ta Mezak ekaitzetatik libratzeko oi dira.

Konjuro oiek MARI koba-barruan arrapatzen badute (zeñek daki MARI barruan dagoan ala ez...?), gaiztakeria kentzen diote Sorgiñen Erregiñari; baña, une artan, leizean ezpadago, orduan, ekaitzak sortuko dira...

Ekaitz eta eraso oieri nola gogor-egin?

Aztikerien bidetik.

Aztikerizko itzez eta kiñuz.

Leenago ikusi degu, nola, apaiz egindako MARI'ren semeak, anai gaiztoak egiñ nai zituan okerak, konjuratu zituan: bere oñetakoak baratzara botata... Konjuratzalleak bere oñetakoak, ostiko batekin, aidean botatzea, askotan aitatzen dan gauza da... Geienetan, oñetako oiek odei artean galtzen dira... eta ekaitzak ere bai, oñetakoekin batera.

Baña oiek bada-ezpadako konjuruak dira.

Badaude, kobaetako usai ta kutsu geiago dutenak, koba-atzik galdu ez dutenak:

Gatz-aleak sutara botatzea...

San Juan egunean bedeinkatutako belar ta lo-

rak edo Erramu eguneko ereñotza etxe-atarian erre...

Zeanuriko baserritar batek, ezkerreko eskumurrean uztai-belarra bildu ta eskubikoarekin Odei-ri agintzen zion nun bere arri-jasa bota...

Ekaitzari agintzeko ba'dira itz eta formula bereiziak. Ona ale batzuk:

*«Carga la Izarraitz,
descargo la Ernio,
guarda la Alzola,
endemás Semeola».*

Beste bat:

*«Carga Murumendi,
pasar Orendain'di
descarga Gorrimendi».*

Euskaldunak, konjuroak egiteko, eurak ez dakiten izkuntza erabili behar...! Mintzaira misterioa behar, nunbait.

Lehenago esandako gauza bati elduko diogu orain: tximistari.

Tximista edo oñeztarriak, MARI'ren eskutik datoz; berak botatzen ditun suarrizko-aizkorak omen dira... Orregaitik, arrizko (ta galtzairuzko) aizkorak tximistan kontrakoak omen dira...

Aizkorarekin batera, itaia, ere, bai. (MARI itai baten antzera ikusi oi dute, mendi batetik bestera pasatzen...)

Leize-zulo usai galanta darite, gauza auek.

* * *

Kristau Euskaldun askorentzat, Fedeko zenbait oitura, rito ta zeremoniek, konjuro auen antza ta indarra dutela, pentsa genezake...

MARI ta sorgiñak uxatzeko Mezak... Animalia, soro ta baserrien bedeinkatzeak... Animaliak sendatu edo ekaitzak aldentzeko otoitzak... Euri edo eguzkia erakartzeko prozesio ta errogatibak...

Bai, ba'dakigu berdiñak ez dirala.

Baña, gure zenbait baserritar (ta baserritarrak ez dien) kristauen buruetan, MARI'ren izena kristau-egite auetan aitatzen ezpada ere, ez ote dago, uste-gabe, barru-barruko sukoszientearen muñetan, MARI bera «presente»...?

Milla (edo milla ta bosteun?) urte gure arteko azken-jentillak amaitu zirala dira. Ta jentill-eran zenbat urte bizi izan giñan...? Amar millatik aurrera... Koba-zuloko sinisteen kutsurik oraindik ez galtzea, arritzekoa al da...?

Gai onetaz esatekorik ba'degu oraindik.

Baña, goazen aurrera.

MARI'REN ELIZKIZUNAK

Orakulo baten antzekoa da MARI; erantzunak ematen bait dizkio, galdezka kobara dijoanari...

Beragan sinistea dutenai, laguntzen die...

Eskeintzak artzen ditu urteero (aaria, zaio atsegiñena, eskeintza oien artean).

Mezak ere, ateratzen dizkiote...

Suetako edo Tellatuko MARI'ri ortzak eskeñi oi dizkiote, berriak jaio ditezen...

* * *

Oiek ola dirala, ba'da, Frantzi aldeko Euskalerrian, orain emango degun zerbait.

Bidarry erriko Zelharburu mendian, «Arpeko Saindua» izena zuen koba-zuloa dago. «Santu» cri leizean sortutako estalagmita bat da, ta bururik gabeko giza-gorputz baten antza du.

MARI'ren leizeetan gertatzen diranak gertatu oi dira koba onetan ere: zulora gauetan sartzen dan su-garra... bertan galdutako neskatxa... gaueko oiua... leize-zulora ez begiratu ta ez sartzea kastigurik gabe... ta abar.

Gau batean neskato bat galdu omen zan, ta bigaramonean burua bakarrik topatu zuten; neskatoaren gorputzik ez... Urte askotan, gauero-gauero, oiua ta intziri larriak entzuten oi ziran... Baña, egun batean, argi bizi bat leize-zulora sartzen ikusi zutenetik, oiua ixildu, neskaren gorputza, arrinda ikusi zuten koba-barnean, estalagmitaren gizan...

Arpeko-Sainduaren koban, Urkiolako elizan bezela, makulu ta ex-botoak ugari, ormaetatik zintzilik... makulu ta gaxotasunaren beste irudiak koba-barruan bertan utzi ezkeru, gaxotasuna bera ere bertan uzten, alegia... (Magia bistan berriz ere).

Leize-zuloan txanponak ere ikusten dira lurrean, Santuari eskeñiak...

Santuaren, estalagmitako imajiñatik darion urakin, azaleko legen eta begietako miñak sendatzen dira. Kandela, dirua ta kurutzeak eskeintzen dizkiote Arpeko Sainduari...

Bere pesta, Trinitade egunean...

Dantzarekin, batez ere, ospatzen dute beren pesta ori...

* * *

Leize-zuloetan txanponak botatzea (bide-ertzeko ermiteetan egiñ oi dan antzera), Kristau aurreko oitura zaharra da Euskalerrian. Santimamiñe ta Isturizko kobaetan ere, txanpon zaharrak billatu oi dira; ta bi aitz-zulo oietan marrazki ta pinturak daude, aztikerirako zeuden santutegi izkutueta... Dirua Arpeko Sainduaren koban, dirua Santimamiñen, dirua Isturiz'en: iru leizeetan alkarren antzeko oiturak izango ziran... Arpeko Saindutik atera genezake argia, beste oitura zahar Historia-aurrekoak ezagutzeko...

Gaurko egunean Santimamiñen ez da txanpon-dirurik botatzen. Oitura au an galdu zan; baña, Arpeko Sainduan ezta oraindik galdu... Orra zergatik, prehistoriako euskalduna ezagutzeko, gaurko eguneko euskaldunari begiratzen diogun, oraindik ere gordetzen bait ditu aurrekoen zenbait oitura ta pentsakera...

ITZ BATEAN ESAN

Arkeologiak, Euskalerriko aitz-zuloetan ta Et-nologiak Euskalerra bizi-bizian erakusten digute-na, elkarren antzeko bi gauza dira: paralelismo baten itxura dute. Bata besteakin ondo datoz...

Gauza arrigarria da.

Baña, egia da.

Euskalerra, erri bera da, Prehistoritik ona.

Ezta erri ori oso aldatu arrezkero: barne-mu-ñeko mami ta espirituak irauten dio oraindik... Orra zergatik duen gure Euskalerraik ainbeste balore ta garrantzi Europa Prehistorikoa ezagu-tzeko.

Gune Erriari gertatu zaiona (ordutik ona irau-tea, alegia), etzaio beste Erriri gertatu (Europa-errietan ari gera)... Gauza ontan, ez dago erririk gurearen antzekorik...

Euskalerra galtzeak (bere oitura, esaera, pen-tsakera, mintzaira galtzeak) Europako Yakintza-ri kalterik asko ekarriko lioke...

Erremediorik gabeko kaltea ekarri ere.

Ba'da Euskalerrian au ez dakian euskaldunik asko, ta jakinda gero sinisten ez dutenak ere, bai... Etxekalte dira orrelakoak: nor-bere Erria-ren aberastasunak uskeritzat dituztenak, alegia... Kanpotik etorri behar gure aberastasunaren be-rrri guri ematera... Intxaurrezko-kutxa zahar lan-duak txatarrerorari saltzen zaizkion bezela, sal-

duko genduke gure euskal-gogoa, gure euskal-mintzoa...

* * *

Koba-zuloetako margazkietan (animali zauri-tuak, animali zauri gabeak, animali antzeko gi-za-irudiak), marrazki ta pinturak dauden tokien illunpeetan... agertu oi dira Histori-aurreko eus-kaldunen aztikeri ta sorginkeriak...

Aztikeri oien antzekoak ikusi ditugu gure ake-larrearen inguruan: sorgiñak, mozorro-jantziak, animaliak (akerra, batez ere)... Baita MARI'ren inguruan ere.

MARI leize-barruetan bizi da...

Animalien antza du (aker, aari, zezen, zaldi, bigai, suge, erensuge, bela-beltz, putre...). Andrea izan arren, auntz eta putre-ankak ere izan oi di-tu...

Leize-zuloetako marrazkietan noizik-beinka, animalien artean arbolaren bat ere ikusten da... ta MARI ere, ez da animalien itxurakin bakarrik konten; ba'ditu beste antz-irudiak ere: zugatz, aize-burrundara, laño zuri, illetargi ta suaren an-tzera agertu oi da kobatik kanpora dabillenean. Ori asko eztała, tximista ere, bere eskuan du...

Munduaren indar guztien bilduma ezpada MA-RI; gutxienez, beintzat, indar oiek bere mende-an ditu... Ama Lurraren gogo ta espiritu balitz bezela...

* * *

Uste, siniste ta oiturak (MARI'renak), guziak daude nahastean: Ez da lan erreza, berari dago-kion tokian jartzen, ta euren artean estratoak konpontzen...

Dana dala, egi galanta auxe da: gaurko egia-ren argiak atzoko illuna argitzen digula, ale-gia... an aizkeneko irudi aiek, oso garbi ikusten ezpaditugu ere; lausotuta baizik.

* * *

Koba-zulo barruetan (Prehistoriako animalia margoztuen antzera) bizi da MARI... Kristautasunik artu ez ta, jentil gelditzen da... Bi seme ditu: bata ona, bestea gaiztoa, onaren eta txar-raren ama bera balitz bezela... Berbera ere, ona ta gaiztoa da... Ekaitz, tximist, ortzantz eta trumoi guzien jaun-da-jabe berbera da... Erantzunak ba'ditu galdera guzientzat... Konjuroak egi-ten zaizkio... Meza ta diru-txanponak eskeiñi... Aginduak ematen ditu gizaartean... Ta, bere elixatxoa ere, leize batean, ba'du...

Gauza guzi auek eraman ditzagun, oraiñ amar milla urteraño, euskalduna aitz-zuloetan bizi zan denboraraño... Orduko bizibideakin ez al litzake, bat baño geiago, ondo etorriko...?

Lagundu al lezaiguteke gauza ok, orduakoak aztartzen ta argitzen?

Zalantzarik gabe, bai.

Alkarren antza geiegi daukate, jatorri bate-

tik ez etortzeko biak, orduko ta gaurko bizibide ciek... MARI'k azti-papera egiten diardu; berak, animaliena, ere; bere inguruan egiten diran zenbait gauza (orakulo, konjuro, elizkizun (Meza), aztikeri ta abar) egin zeizkean, orduko eliza ziran leizeetan...

Baña, izan leike, Prehistoriko leizeetan agertzen ez dan zer-edo-zer, agertzea MARI'ren inguruan, eta auxe da zer ori: Ama Lurraren indar danen jabe, MARI dala; berbera ezpada «indar» ori. Prehistoriko koba-zulotik kanpora ere, izango zala beste yainkoren bat, iruditzen zaigu... Baña gaurko euskaldunen siniskeraetan ez degu gauz ori garbi ikusten, estrato guztiak nahastu diralako...

Aizea, ekaitza, tximista, trumoia, txingorra, euria, argia, illargia, sua... orra munduko indarrak, MARI'rengan. Uraren (itsaso ta ibaiarena) (euria ta txingorrena, ez) utsunea dakust or... Baña euskaldunen gogoia ondo aztertuko bagenduke, «ur» ori baztarren batean billatuko gendukela uste dut...

Munduko indar auen estratoa izango zan zaharrena. Gerora sortuko zan aztikeri ta sorgin-kerien estratoa... Oien ondorengo estratoak ere, asko dira; guztiak nahasian badaude ere... Ez da Euskalerrriaren ertzetik kulturarik pasa, bertan bere kutsua laga ez duanik... Estrato oien arras-toak, lausotuta daude, alkarren artean korapillotuta, alkarrekin nahastuta...

Zeñ izango da korapillo ori askatuko duen gizasemea...?

Zeñek, nahaste-borraste ori argituko ta ordenan jarriko...?

Etor dedilla lehen-bait-lehen gure arteral!

Nik uste, ordea, lan au ez dala gizon bakar batentzako egiten dan lana. Gizaarteko lana deritzot. Ekipoko lana. Danok alkar-artuta egiñ behar degun lana...

Lehenbiziko eginbeharra, antziñatik eldu diran zer guziak biltzea litzake, apurrik txikienik utzi gabe... Bilduma egiñ ondoren, (aurrekoen aztarna guziak galtzeko arrixku bizian gaude-ta gaurko egun auetan), apur guzien zer-ikusi ta euren arteko artu-emanak argitu... ta estratoetan ipiñi...

Orra, gure aurrekoen bizi-modua nola atera leiken... Guregan bizi bait dira oraindik.

Noiz arte?

VII

MARI'REN MENPEKOAK

MARI, sorgiñen erregiña bada, izango ditu bere menpean morroi ta neskameak ugari.

Ba'ditu, bai.

Guztiak bere menpekoak ezpaditu ere, bere inguruan dabiltz, beeragoko malla batean.

ANIMALIAK KOBA-ZULOETAN

MARI'k, lur-azpiko erreinoetan bizi dan artean, animalien itxurak artzen ditu. Baña, zenbait esaera ta gertakizunetan, ez da MARI'ren izenik aitatzen, animaliak (bei gorria, zaldi zuria, aker beltza...) aitatu arren. Emen MARI'rekin zer-ikusirik izan ba'zuten ere, gaur zer-ikusi oiek aztuta daude:

«Gizonak ba'du lur bat, bertan bizitzeko ta bertan iltzeko. Baña, andik aruntz ez du ez ahalmenik, ez ahalik.

Odeiak, gizonen baimenik gabe dabiltza gañetik.

Lurrazpiko eremuetan, berriz, deabruak dira nagusi.

Deabruak lurgañera ateratzen dira, animaliez jantzita eta animali gisan.

Behi-gorri, zaldi-xuri, aker-beltz, zerri-xuri, ahari ta suge...

Lengo mendeetan nagusituak zebiltzen munduan; orain gutxiago, elizak eta ermitak egiñak diran ezkeroz.»

Orra, 1943'garren urtean larogeta amar urte zituan euskaldun batek zer zion.

Koba-zuloetako animaliak, deabruak dira: espiritu gaiztoak; ta Kristautasunak menperatu ditu... oro-bat izan ezpada ere. Lehenago kobaetako pinturari buruz esandakoak, baieztan ditu agure onek...

ZALDI ZURI

«Bi mutiko mendigañeruntz zihoazen; bat, meza entzunik; bestea, ez.

Eta Ahusi'ko ibar-soroan ikusten dute zamari (zaldi) xuri eder bat.

Mutiko bat (meza entzun zuana) igo zitzaion gañera:

—«Arri...!» Eta ezitzaion ibiltzen zamaria.

Bestea igo zitzaion.

—«Arri, deabrua!»

Zamari xuria aideratu zan, mutikoa gañean juan zan Lexarrigibeleko kobarat buruz.

Eta beste mutikoak entzun zuan:

—«Eramak ori ere!»

—«Eztiat ahal. Orrek entzun dik «Ite Misa est».»

Zamari-gañean juan zan mutikoa ezpaizan agertzen, jentiek juantziran billatzera.

Eta Lexarrigibeleko leizean ikusi zuten illik...»

BEI GORRI

«Bei-zai zegoan Irari'ko alabea.

Eta gero, bei-paltan, etorri omentzan etxera. Birao egin zion uezamak: etzala gehiago etxean sartuko beirik gabe.

Gero, iñularrean, bei billa juan zan, ta billatu zuan bere beien pigura gorri-gorrie. Ta eldu zion isetsetik.

Gero, pigura berarekin, zulora sartu zan.

Etzan neska azaldu aldi batean.

Eta, zulo orren atakan, illea orrazten ikusi zuten artzaiek. Gero etxera deitu zioten gurasoai artzaiek, neska nun zegoan.

Ateratzeko esan zien neskari gurasok.

Eta neskak txerri gorri txiki bat zuan alda-

menean. Eta ura esnatzen baldin bazan, galduko zituala esan zioen gurasoai, ta alde-egiteko...»

«Neska bat jua zala, esaten dute, Aizkorri mendira bere bei baten billa.

Ikusi zuela bei gorritxu bat, eta, berea zualakoan, artu zuala adarretatik.

Orduan beia sutu zala, eta neska berekin zuala, leize batean sartu zala...»

Bei gorriaren leloa maiz entzuten da gure esatera zaharretan. Esan ditugun bi gertaera auetan ez da MARI'ren izenik aitatzen, baña bere susmoa artu, bai, artzen zaio.

Bei gorria esaten dan bezela, zezen gorri edo iizko gorria esan oi da beste gertaera batzuetan.

AARI EDO AKER

Zegaman esaten dute Aketegi'ko zuloan MARI agertzen dala aari baten gañean... MARI, aari batekin bizi dala bere koban, ta aari ori duela eserleku ta buruko, esan oi dute...

Aari ori ez da MARI bera; baña, MARI'rekin bizi da.

* * *

Akerra akelarreko jaun-da-jabe, ikusita gaudede...

Akerrak gordetzen ditu gure baserrietako ikullu ta kortak gaitz eta espiritu txarretatik...

«Auza'ko mendian ba omen da leize bat, eta leize aren barnean, urrea ageri.

Suge aundi bat urrearen ondoan, eta aker bat...»

SUGARRA

Sugarrak «suge-arra» esan nai omen du.

Gauza batzuetan MARI'ren antzekoa da, MARI berbera ezpada...

Leize-zuloan bizi da, bera ere: lurpeko eremuetan; baña, kanpora ere, agertzen da suzko itai baten antzean (MARI bezela); ori gertatzen danean, ekaitza datorren señailea...

Gurasoen esanak betetzen ez dituanai, zigorra ematen die...

Askotan, Sugaar eta Majuk berdin jokutzen dute: antzekoak dira, eta biak, arrak... Azkoitiko partean Maju MARI'ren senarra da; baña senarra izan arren, MARI'ren menpeko...

Ba'dira, Sugarrak botatako arri aundiak, bazterretan. Ataun'en ba'da arkaitz bat:

«Muski'ko kobagañeko aitzei kenduta, Sugarrak botea omen dala esan oi ziguten zaharrak...»

IRAUNSUGE

Sugarraren antzekoa.

Aldiz, buru-bakarra; aldiz, zazpi buru dituana.

Ona bere beste izen batzuek:

Erensuge, Errensuge, H e n s u g e, Edensuge,
Egansuge, Sierpe, Dragoi ta Lereusuge.

Koba-zulo barruetan bizi da au ere.

Aralarko leizean bizi zan, San Migelek zazpi
buruak ebagi zizkion arte, Teodosioren eskari-
ra...

Ona Xuberoan zer dioten:

«Ahusi-partian da Azalegi'ko koba.

Eta an ba zan lehen Hensugia. Zazpi buruko
sugia omen zen. Bere atsarekin (arnasarekin) era-
kartzen zituan mendiko piztiak eta jaten.

Alzai-Zaro'ko konde baten semeak ill zuan...»

LAMIÑAK

Zuloetakoak dira.

Emeen izena da «Lamia»; arrena, berriz,
«Maide».

Persona txikiak dirala esan oi digute: ongi egi-
tekoak, geienean beintzat.

Gernika-inguruko lamiak, gerritik gorakoa an-
dreena dute; berakoa, arraiena...

Lamiak, bizkaitarrak ditugu. Gipuzkoa, Napa-
rro ta Araban gutxitan aitatzen dira sorgiñ auk.

Ba'da Bizkaian «Lamiñarrieta» izena duen
ibai-bazter bat, arri zabal aundiak ugari ditua-
na... Arri oietan egoten omen dira lamiak beren
illeak orrazten...

Beñ Balzola'ko koban neskatx batzuek bizi
omen ziran, ta artzaiek ikusten omen zituzten
neska auk, beren buruak orrazten, arri baten
gañean... Erromerira jeisten omen ziran, bañan
oñak ondo estalita, ollo-ankak bait zituzten...
(MARI'k ere, putreenak zituan)...

* * *

Etxegintzan ere iaioak omen dira sorgiñ auk:
etxe, jauregi, zubi...

Arrozako zuba egiten ari zirala (gau bakar
baten lana izaten zan), aizkeneko arria jartzeko
zegola, ollarrak jo omen zuan. Lanari utzi ta lais-
terka alde-egin beharra izan zuten; ez, orratio,
ollarra madarikatu gabe:

«Martzoko ollar gorria, madarika ikala mi-
hia (mingaña)»...

* * *

Baserritar batzuek jatekoa uzten omen zuten
beren soroetan lamientzako; lamiak, berriz, ga-
baz etorri ta jan... Lamiak, beren esker ona era-
kusteko, soroak lantzen zituzten gauz.

Lamin batek, gauero, sukaldera sartuta, arda-
tzean zegoan andreari ogia koipetan buztia eska-
tzen omen zion...

* * *

Beñ, koba-zuloan lamiña erditzeko miñetan zegoala, beste lamin bat joan omen zan Oxa ze-laiko baserrira etxeoandreaken laguntza-billa. Etxekoandreak lagundu zien arazo artan; bai pozik gelditu ere, lamiak Oxa'ko etxeoandreaken lanarekin. Esker ona agertzeko sekulako bazkari on bat eman zioten... Jatekorik ederrena, ogi zuri goxoa... Etxekoandreak, mantelpean gorde zuan pusketa bat, gero etxera eramateko asmoz. Bazkalondoan jeikitzen asi zanean, ezin zuan bere bururik jaso... Lamiñek esan zioten, baimenik gabe zer-edo-zer artuko zuela kobatik... Bere pekatua aitortu ta ogia bere lekuan utzi zuanean, etorri zitzaion jeikitze ahalmena... Orduan lamiñak ogi osoa erregalatu zioten etxerako...

IRELTXO

Ieltxu, Iditxu edo Idittu, ona beste lamiñen antzeko izakiak.

Batzuek, egaztiak dirala diote. Besteak, suzkoak dituztela gorputzak. Urrungoak, berriz, egaztiak dirala, baña aotik sua dariotenenak...

Txerri txikien antzekoak, ere, egingo dituzte zenbaitzuek.

Ez dira gaizkille.

Jendea ikaratzea izango dute beren gaitz okerrera. Jokabide au, batez ere, ikaratiak diranekin erabili oi dute...

GAUEKO

Gauaren jaun-da-jabe, animalien gisan dabill.

Gabeko apostuak eta illargitan egindako lanak debekatzen ta zigortzen ditu...

Ikazkin bat ikatza egiten zebilela, gauero amabiak inguruan, txondarrari begiratzera joaten ei zan.

Gau baten, lan onetara zijoala, ganadu bat, bei antzekoa,, bidean etzanda topatu ei zuan.

—«Altza!» —esan ei zion; baña, beiak ez ei eban ikararik egiten.

—«Altza!» Berriz ere, eta berdiñ.

Irugarren aldiz «Altza» esan zionean, jeiki ei zan ta arran txiki bat txilin-txilin joaz, ikazgiñari begiratu ta itz auek esan ei zizkion:

—«Gaba gabekuentzat eta eguna egunezkuentzat.»

Ikazkiña zearo bildurtuta etxera joan ei zan, eta geiago ez ei zuan mendira joaterik nai izan...»

PRAKA-GORRI

Galtza-gorri, Mamarroak, Fameliyelak, Beste-mutillak, Bearreztanak, Aidetakoak... Ona zenbat izen dituzten Praka-gorriak.

Auen berri eman genduan, «Sorgiñ nola egiten dan» agertutakoan.

Animali, mozorro edo gizontxoan antza omen dute.

Galtza gorriakin.

Beurok ematen diete indarra sorgiñ eta aztiei.
Jostorraz-ontzi batean sartzen dira pillo oso bat.

Sanjuan-bezperako gaberdian biltzen dira, jostorraz-ontzia irikita eukitzea beste gabe.

Baionan ere, saltzen omen ziran.

Ongille ta laguntzalle ditugu.

* * *

Ona Kortezubin (Santimamiñe) gizon bati gertatua:

«Gizon batek erosi zituan Fameriyelak, lana soroan egiteko.

Jostorraz-ontzi batean zeuzkan. Agindu zien lana egiteko. Lan ura amaitu ta etorri zitzaizkion berriro lan-eske. Eman zien beste biar bat. Akabau eben. Beste bat... eta orrela, lau aldiz. Bosgarrenean etorri ziran berriro:

—«Zer lan egingo degu?»

Etzekien zer lan eman, beriala amaitzen bait zituzten denak.

Orduan agindu zien ekartzeko ura galbaian. Asi ziran lanean Fameriyelak; baña, egiñ-alak eginda ere, ezin zuten urik ekarri. Gelditu ziran arzenik, agindurik bete ezin zutela...

Familiarrak baño gizon on baten jakituria geiago zalako, Fameriyelak juan ziran atzera.»

* * *

Gai oneri buruz, ona beste ipui bat:

«Aizpuru'ko apaizak (Orozko'n) Familiarrak zituan etxean, eta neskameak egun batean onela esan omen zion:

—«A...! Zein ederki juango nitzaken, gaur arratsaldean, Madril'go zezenetara...!»

Ta apaizak erantzun:

—«Ba, nai badezu gura ba'dezu, juango gera «oiekin»...»

Ta, mamarroak artu ta, bazkaria jan ondoren, Madril'go zezenetara juan ei ziran...»

MIKOLASAK

Deabruak ei dira.

Ba'da Larrabezua'n, Atxisp'e'ko mendian, bost Mikolasen artean botatako arkaitz bat...

BASAJAUNA

Illez ondo ornitutako gorputz aundia omen du Basajaunak.

Indar izugarriak omen ditu, soñeko illeak bezela. Oso bizkorra ibiltzen...

Mendi-oianetan baso-zokonetan bizi oi da...

Makilla aundi bat darama eskuan...

Artaldeak mendian diranean, esne-lapurretan ere ikusi omen dute... Bildurgarria: «Elurretako Gizon Ikaragarria»-ren antzekoa...

Ona zer dioten Ataun'en:

«Denbora batean, Muski'ko koban, Basajaunak bizi omen zien. An inguruetakoko lurrek erabillita, sekulako gariak biltzen omen zituen. Beraldeko lurretan Kristauek bizi omentzien da artean ez omen zeuen garirik ereiten, gal-azirik ez da.

Beñ, Sanmartintxiki, botiñ aundi batzuk jantzita, igo omen zan Muski'ko kobara; ta ango gari-pillak ikusita, zeñek saltoka ariñago pasatu, Basajaunekin apostu egin du.

Baita, Basajaunak berealdiko erreztasunez pasatu omen zuten; Sanmartin-txiki, berriz, gari-pillaren erdian erori omentzan; baña baita botiñ guziak gal-alez bete ere...

Kristauek ez omentzekien garie noiz ereñ; baña olako batean Basajaun bati aitu omen zion nola algaraz esaten zion:

—«Ja, jaari...! Balekia, artuko likenea:

Or irtete, arto ereite;

or erorte, gari ereite...»

Ordutik zabaldu omen zan garia erri dantetan...»

JENTILLAK

Jentillak eta Basajaunak, biak antzeko dira: gizonen itxurakoak. Gari-arazoan ere berdiñ jokatzen dute. Eman dezagun Jentillen berri.

Jentillen etxe-bizitza.

Geienetan koba-zuloetan bizi ziran, MARI'ren antzera, eta urrezko orrazeekin orrazten...

Andre Jentil batek, bere urrezko orrazea koba-aurrean utzi omen zuan, ta Matxine baserriko neskameak, orrazea ikusita, bere etxera eramane... Gau artan, Oiartzun'go Aya'ko Aitzetan bizi zan jentil ark, Matxine'ko leio-azpian onela kanta omen zuan:

*«Matxine'ko neskamia
ekatzan nere orrazia;
beztela emango diñet
ere biziko ezurre-oñazia...»*

Ba'da Ataun'en trikuarri edo dolmen bat «Jentilletxe» izenez ezagutzen dana...

Urdiañ'go aitz batek, alde batetik besterañok zuloa dauka. Zulo orreri «Jentileioa» esaten diote, ta aren inguruko beste zulo bateri, «Jentil-sukalde»... «Jentileioan» emakumea ikusi oi dute bere illeak orrazten...

«Jentilbaratzak» ba'dira bai Ataun'en, bai Zaldibi'n. Baña, izen onekin «cromlech» asko ezagutzen dira Goizueta'n bezela, Arano ta Berastegi'n ere.

Ona Ataun'go Jentilbaratzako jentillakin gertatua:

«Lenago Jentilbaratzan jentillek bizi omen ziran. Askotan, Agerre baserrira jeizten omen ziran, egun-sentian ollarrak kukurruku jo arte...»

Beñ Agerreko nagusia gaizkitu zan, ta Eliza-koak ematera zijoazen. Au jentillek jakin zutenean, kristauek ez izan arren, urrezko sobrekamea Agerrera jetxi omen zioten, ta berarekin ga-xoaren oia, Elizakoak joaterako, jantzi omen zuten.

Agerrekoak jentillen sobrekamaren gura izan nunbait ere, ta ala, iltzez oiari josi omen ziotenda, baita geroxeago ollarrari kukurruku jo-azi ere.

Jentillek ollar-kantua aditu zutenean, eldu eren sobrekamari ta berealdiko errun abiatu omen ziran; baño sobrekama puska bat oiaren ertzari josita bertan geratu omen zitzairen. Orduan jentillek deadar egiñ omen zuten, Agerre dan artean etzala etxe artan eririk edo makirik (beso-motzik) paltako...»

«Jentilzulo» Leiza'ko koba-zulo batzuek dira. Ona zer gertatu zan:

«Jentilzuloetan jentillek bizi oi ziran, ta Uz-parrun baserrikoekin adiskide oi ziran. Beñ jentillek Uzparrun'go auspoa eraman zuten ta Uz-parrun'goak jentillek urrezko txarrantxa. Jentillek txarrantxaren billa juan ziranean, lapurretan egin zuten Uzparrun'en. Orregatik, berriz jentillek auspo-billa etorri ziranean, etzioten eman nai izan ausporik. Ta orduan jentillek maldizioa bota zioten: «Etxe ortako etxeakoandreak ez dezate-lu sekulan osasun onik izan...»

Jentillen indarrak

Jentillak indarrean ere Basajaunen antzekoak ziran.

Zaldibi'n esaten dute «Gaztelu» arkaitzean bizi zan jentil batek, Naparroa'tik zazpi idi-narru-gari zekarzkila lepoan bide guztian atsedetik gabe...

«Zerain'go Arrola baserriko jentilla, beñ, Araba'ra joan omen zan gari-billa. Idi-narru bat gari bizkarrean zuala zetorrela, bere alabea topatu omen zuan aurrez-aurre Zerain ta Zegama'ko mugan.

—«Atsedean egizu ura edan artean» —esan zion alabak.

—«Jakin izan baniñ atsedentzea zer zan, beste ainbeste gari ekarriko niñan.

Buruan zeukan erradatik eskeiñi omen zion ura alabak eta errabaldea urarekin irentzi omen zuan aitak.

—«Nun degu baldea?» —galdetzen du alabak.

—«Apurren bat irentzi ote diñan iruditu zatan...»

* * *

Pelotariak ziran jentillak.

Ospe aundikoak, eta indarra aundiagoa... Ba'.

dira Euskalerrian zenbait arri ta arkaitz jentillak aidean botatakoak...

«Pelotari batzuek Murumendi'n (MARI'ren bizilekua bertan dago) pelotan omen zebiltzen.

Ta jentil bat jua zitzaien eta galdetu:

—«Zer egiten dezute emen?»

—«Pelotan jokatu» —erantzun zien.

—«Arri au zertarako dezute?»

—«Sakarritako.»

—«Berau ere ez dek txarra peloten eran botatzeko.»

Ta artu eskutan sakarria ta berealdiko errun Aralar-aldera bota omen zuan...

* * *

Jentillak indartsuak eta aberatsak, baña gizona azkarragoa jentillak baño... Ara zer gertatu zitzaion beñ jentil bateri:

«Leizadi'ko txabola batean artzai bat bizi zan.

Egunero-egunero, gazurea prantatu-garaiako, goiko kobatik jentil gazte bat jetxitzen omen zitzaion ta arrizko ipurt-aulki batean eseri ta gazure dana edaten omen zion.

Alako batean, artzai orrek, zer gertatzen zitzaion bere lagun bati kontatu omen zion. Eta onek, urrungo egunean jentille zetorren garaira-

ko ipurt-aulkia sutan gorrituta jartzeko, esan zion.

Ala bada, urrengo egunean, lagunak esandakoa egin zuan. Sutatik ipurt-aulkia atera zuan bezin laister, sartzen da txabolan jentilla; baita aren gañean eseri ere. Baña, eseri zanerako, deadarka jeiki omen zan.

Bai, orduantxe ango aldiak sekulako azkarrena egiñik izan bear zituan!

Alako deadarretara bere gurasoak kobatik irten-da, galdezka ekiñ omen zioten:

—«Zeñek egin dik? Zeñek egin dik?»

—«Neuk, neuri, neuk, neuri...!»

* * *

Ona beste jentil bati ikazkin batzuek egin ziotena:

«Saskain-mendian ikazkin batzuek zebiltzen beñ lanean.

Alako batean porra-ziria geiegi trungoan sartu, ta iñundik iñora eziñ atararik omen zebiltzen.

Ia ernega-egin zutenean, jentil bat, oso indartsua ta aundia euren aurrean presentatu omen zan.

Ikazkiñak ikaratuta, zer esan etzekiela gelditu ziran, arrek danak garbituko zitualakoan.

—«Zer egiten dezute or?» —galdetu zien jentillak.

—«Porra-ziri auxe ezin degu atera».

—«Ori ezin dezutela atera?»

—«Ez, ezin degu atera».

Orduan jentillak, trungo-printzaran, bi eskuak sartu omen zituan, bi eskuen erdian artuta, porra-ziria ateratzeko.

Baña une artantxe ikazkin batek, porrea gora jasota, porra-ziria, zeukan indar guziekin jo zuan, ta jentilla antxe gelditu zan, eskuak trungo-printzetan lotuta...»

Jentillen azkena.

Ez omen zan eudirik. Beti legor, eta lañorik ez iñundik...

Beñ, laño bat agertu omen zan eta jentil guziak ikaraz zebiltzan, ze gertatuko ote zan. La-reun urteko agure bat atera zuten argira, lañoa ikusteko, alakorik ezagutzen ote zuan. Baña, betazalak itxiak zitulako, ezin zuna lañorik ikusi. Orduan betazalak palanka-burni aundi batekin iriki zizkioten.

Lañoa ikustean, zion:

—«Gure jendea galdu da...!»

Ta arrezkero, Kristautasuna sartu ta Jentillek galdu ziran.

* * *

Zaldibin diotenez, lañoa ikusi zutenean, men-

dian gora iges-egin zuten, ta muño batera eldu ziranean arri-pillo baten azpian gorde ziran. Arrezkero, arri-pilla arreri «Jentilarri» deitzen diote... («Jentilarri», dolmena da; ta dolmenak arri-pilla-azpian egoten dira).

* * *

Ona Ataun'en nola kontatzen duten Jentillen akabera:

«Jentillek Leizadi'ko koba batean bizi ziela, sekulako izar eder bat odaietan agertu omen zan.

Alako izarra ikusi zutenean, jentil oiek erabat ikaratuta, munduan zer gertatu bear ote zuan, ezin asmatu omen zebiltzen.

Alako batean, koba barruen erdi itxututa zegoan jentil zahar bat ataka-aurrera atera, ta endaeikin betazalak zabaldu, ta odaietara begira jarri zuten, ark izar ari zertzan antz emango ziolata.

Baita ikusi orduko deadar egiñ:

—«A, ene umeak...! «Kixmie» jaio dek, galduak gaituk oraintxe. Bota-nazazute ni emendik gain-bera».

Jentillek Jesukristori «Kixmie» deitzen omen zioten...

Gero, Kristandadea munduan zabaltzen ari zanean, jentil danak sakabanatu ta bereala galdu omen ziran...»

TARTALO

Jentillen antzeko-edo da Tartalo.

Koban bizi da bera ere, Jentillek bezela.

«Tartalo-etxeta», Zegama'ko mendi batean dagoen dolmen bat da.

An bizi zan Tartalo begi-bakarra: kopetaren erdian zuan bere begi bakar ori.

Eizean arrapatutako piztiak jaten omen zitzuan; baita gizakumeren bat ere, aukera izan ezkerero...

Beñ bi anai arrapatu zituan.

Biak mutil gazteak.

Kobara eraman, atek itxi ta aietako bat buruntzian erreta jan.

Besteari eraztuna jarri zion beatz batean, iges egin etzezan. Bazkal-ondoren loak artu zuan Tartalo... Beste anaiak, orduan, buruntzia sutan goritu ta begitik sartu zion Tartalori...

Tartaloren garraxiak...!

Itxu gelditu zan; baña indarrrik ezitzaion palta... Mutillaren billa zebillen, ta mutillak ardi-narru-pillo batean gorde zuan bere burua...

Orduan Tartalo'k, ardi-narruak kobatik kanpora bota zituan, mutilla errezago billatzeko. Ardi-narruakin batera, ordea, mutilla ere bai... Ekiten dio mutillak aldapa bera korrika; baña, beazean zeraman eraztuna asi zan deika:

—«Emen nago...! Emen nago...!»

Deadar oietara, asi zan Tartalo laisterka mutillaren ondoren. Mutillak bere burua arrixkuan ikusi zuanean, beaza ebagi ta eraztuna ta guzti, potzu aundi batera bota zuan... Baita Tartalo ere, eraztunaren atzetik, potzura... Bertan itto omen zan.

SANSONARRI

Ba'dira Euskalerrian aitzaunderiak, Sanson'ek mendi batetik bestera boteak... (Jentillen antzera, au ere, pelotari...)

Oietako arri aundi bat Aizkorri'tik Donostia'ra bota nai omen zuan Sanson'ek aballa aundi baten bitartez; baña, zimaurretan txirrits-egiñ, ta bide-erdian gelditu zitzaion arkaitza...

Sansonek egindakoa Erroldan frantzesari eantzi eta ba'ditugu arriak Erroldanek botatakoak ere...

* * *

Lehenengo arrika asi ziranak Basajaunak ziran. Gero etorri ziran Jentillak. Urruna, berriz, Sanson. Ta aizkenerako, Erroldan...

Orra gauza batentzat, lau persona-aldi...

* * *

Beste orrenbeste gertatu zan Jentillen eta Mairuen artean.

Mairuak, moroak ziran.

Jentillak egindako zenbait gauza Mairuai erantsi eta, aizkenerako, biak nahastu: «Jentilbaratzak» toki batean, ta bestean, berriz, «Mairubaratzak»... Jentillen azkena bezela, Mairuen azkena ere...

Izenak aldatzen dira, baña sinisteak berdin irauten dute... Auek ez dira aldatzen...

* * *

MARI'rekin asi giñan.

Koba-zulotik ez gera atera.

Baña, MARI'ren inguruan ikusi ditugu zenbait Animali, Iraunsuge, Lamiñ, Ireltxo, Praka-gorri, Basajaun, Jentil, Tartalo, Sanson, Errol-dan, Mairuak...

Denak, MARI'ren kutsurik galdu ez dutenak...

Zenbait gauzetan antzekoak...

Denak nahasian... baña, oraindik ere, Euskaldunen biotz-gogoetan bizirik.

BIBLIOGRAFIA

- LOS VASCOS. Rodney Gallop. 2. Edic. Madrid, 1955.
- LOS VASCOS. Guillermo de Humboldt. RIEV. San Sebastián, 1925.
- RAZA VASCA. Varios. Zarauz, 1959.
- EL HOMBRE PRIMITIVO EN EL PAIS VASCO. J. M. Barandiarán. Donostia, 1934.
- EL HOMBRE PREHISTORICO EN EL PAIS VASCO. J. M. Barandiarán. Buenos Aires, 1953.
- GEOGRAFIA DEL PAIS VASCO NAVARRO. Carmelo Eche-garay.
- HOMENAJE A DON CARMELO DE ECHEGARAY. San Sebastián, 1928. (Varios).
- HOMENAJE A DON EDUARDO ESCARZAGA. Varios. Victoria, 1935.
- EL HOMBRE PREHISTORICO Y LOS ORIGENES DE LA HUMANIDAD. Dr. Obermaier. Madrid, 1932.
- EXPLORACIONES DE LA CUEVA DE SANTIMAMIÑE. Aranzadi, Barandiarán, Eguren. 2. Mem. Bilbao, 1931.
- EXPLORACIONES DE LA CUEVA DE URTIAGA. Aranzadi, Barandiarán, Eguren. "Eusko-Yakintza". Vol. II. 1948.
- EXPLORACIONES DE CINCO DOLMENES DE ARALAR. Aranzadi y Ansoleaga. Pamplona, 1915.
- EXPLORACIONES DE CATORCE DOLMENES DE ARALAR. Aranzadi y Ansoleaga. Pamplona, 1918.

- EXPLORACIONES DE NUEVE DOLMENES DEL ARALAR GUIPUZCOANO. Aranzadi, Barandiarán, Eguren. San Sebastián, 1919.
- EXPLORACIONES DE SEIS DOLMENES DE AIZKORRI. Aranzadi, Barandiarán, Eguren. San Sebastián, 1919.
- HISTORIA RELIGIOSA. Eugenio Urroz. Congreso Estudios Vascos de Oñate. 1918.
- ORIGENES DE LOS VASCOS. Estornés Lasa. Zarauz, 1959.
- CUEVAS PREHISTORICAS DE ALTAMIRA. Jesús Carvalló. Santander, 1958.
- INVESTIGACIONES PREHISTORICAS. Jesús Carvallo. II. Santander, 1960.
- LA CAVERNA DE "LAS MONEDAS" Y SUS INTERESANTES PINTURAS. Jesús Carvallo. Santander, 1953.
- MITOLOGIA VASCA. J. M. de Barandiarán. Madrid, 1960.
- LOS VASCOS. Julio Caro Baroja, Madrid, 1958.
- GUIA. Del Museo de Navarra. Pamplona, 1956.
- EL MUNDO EN LA MENTE POPULAR VASCA. Icharopena. Zarauz, 1960.
- EUSKALERRIKO YAKINTZA. R. M. de Azcue, Madrid, 1935.
- R.I.E.V. René Lafon. San Sebastián, 1932.
- REV. "MUNIVE". Dr. Barriola. San Sebastián, 1954.
- REV. "MUNIVE". R. S. Blumerg, A. C. Allison y F. Alberdi-Alén. San Sebastián, 1960.
- REV. "GERNIKA". I. Bayonne, 1947.
- ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE. I. Vitoria, 1921.
- ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE. II. Vitoria, 1922.
- ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE. VI. Vitoria, 1926.
- ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE. XI. Vitoria, 1931.
- ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE. XIII. Vitoria, 1933.
- EUSKO-FOLKLORE. 1947. 2. Serie. San Sebastián.
- EUSKO-FOLKLORE. 1955. 3. Serie. San Sebastián.
- EUSKO-FOLKLORE. 1956. 3. Serie. San Sebastián.
- EL MUNDO EN LA MENTE POPULAR VASCA. Vol. IV. J. M. Barandiarán y Colaboradores. Zarauz, 1966.